



Andoni BLAS
23 urteko rally gidaria
→ 56

Herriko bestak

Arano, Elgorriaga, Elizondo, Ituren...

IGANTZI → 30

Harrobia haunditzeko baimena emana

GIZARTEA → 40

17 neska-mutiko Saharatik gurera

SARA → 52

Pottokaren Eguna uztailaren 24an

KIROLA → 55

Sanferminetako herri kirol jaialdiak abian



ELA, LAB, EHNE, ESK, STEE-EILAS eta HIRU sindikatuek deitutako greba orokorrak segida haundia izan du industrian.

→ 10

GREBA EKAINAREN 29AN

Bortzirietan eta Leitzaldean kasik erabatekoa izan da geldialdia



Xabier ZABALO | Leitzako alkatea

ELKARRIZKETA → 3

Mendialdea Mankomunitatearen lehen balantzea

Laster hiru hilabete beteko dira Arano, Areso, Goizueta, Larraun, Leitza eta Lekunberriko hondakinak kudeatzen dituen Mendialdea Mankomunitatea sortu zela. Lehen balorazioa ona izan dela adierazi digu Xabier Zabalo lehendakariak.



OSPAKIZUNAK → 47

Baztandarren Biltzarra uztailaren 18an

Baztandarrentzat hain besta haundia dena igande honetan zortzi Elizondon.

ERREPORTAJEA → 4-5

'Frankismoaren garaiko Baztan' biloben begietan

Frankismoan baztandarrek bizitakoak bildu dituzte Lekarozko Institutuko ikasleek.



ESKANTZA BEREZIAK

ERAKUSKETA:
Bittiria 26
SALTOKIA:
Plaza Zaharra 27
LESAKA
Tel. 948 63 77 80

muebles
ORDOKI
altzariak









ttipi-ttapa
FUNDAZIOAK

zure laguntza
behar du

eginzazu ttipi-ttaparen alde
proiektu zenbakia: **15.996**

Esku ezazu ttipi-ttaparen proiektua
aukeratu izanaren frogagiria
Nafarroako Kutzaren zure bulegoan
eta ekar ezazu ttipi-ttapara 2010eko
abenduaren 30a baino lehen.

dagoeneko
753
LAGUNEK
egin dute
gure alde



*Poltza eder hau
izanen duzu
opari.*

x geure bezeroek
aukeratutako
x proiektua **can**

Urtarrilean hasi zen Mendialdea Mankomunitatea lanean; Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Lekunberri eta Larraungo hondakinak kudeatzen dituen mankomuni-

tatea, alegia. Aldaketa nabarmena ekarri du zerbitzu berriak herri hauetara, eta guztietan adierazgarriena, orain arte bereizten ez ziren hondakinak bereizi beharra izan da.

Orain artekoaz eta hemendik aurrerako egitasmoez mintzatu zaigu Xabier Zabalo, Mendialdea Mankomunitateko lehendakaria eta Leitzako alkatea.

Xabier ZABALO | Mendialdea Mankomunitateko lehendakaria

«Urtarrilaren 1ean hasiko da ongi zerbitzua, kamioi berriak etortzean»

G. PIKABEA | LEITZA

Nolako balorazioa egingen zenuke?

Hasiera guztiak gogorak izaten dira, baina zerbitzua ongi doa. Bi kamioi daude martxan eta aurreneko datuak onak dira: 4.560 kilo enbase bildu dira, 26.000 kilo paper eta kartoi, eta 126.000 kilo zabor organiko. Eta emaitza ikusita pozik gaude. Aspalditik zegoen bereizketa egiteko beharra, baina ez dakit zergatik, berandu ailegatu da.

Atez-ateko bilketa edo beste sistemaren bat pasatu al zaizue burutik?

Atez-atekoarena planteatu dugu eta Usurbil eta Hernaniko alkateekin ere egon gara. Baina gure eskualdea oso berezia da: 300 kilometro koadrotan 6.000 biztanle ditu. Hala ere, gure datuekin azterketa bat egingo dutela esan digute, eta zerbait misioa egin daitekeela, herriko korreketan modu batera eta tiakienetan beste modu batera eginez. Esperoan gaude ea zer esaten diguten, baina iniziatiba oso begi onez ikusten dugu.

Zein helbururekin sortu da Mendialdea Mankomunitatea?

Mankomunitatea sortzeko saiakera asko egin dira, eta azkenean legealdi honetan jarri da martxan. Hasiera honetan, hondakinekin hasi gara



ARGAZKIA: TTAPI-TTAPA

Xabier Zabalo, Mendialdea Mankomunitateko edukiontzi berriak atzean dituela.

DATU BAIKORRAK

«Aurreneko datuak onak dira: 4.560 kilo enbase bildu dira, 26.000 kilo paper eta kartoi, eta 126.000 kilo zabor organiko. Eta emaitza ikusita pozik gaude. Aspalditik zegoen bereizketa egiteko beharra, baina ez dakit zergatik, berandu ailegatu da»

lanean, behar haundiena hor zegoela uste genuelako, eta oinarritzko zerbitzuak ere falta zirelako. Baina zerbitzu orokor asko emateko sortu da Mankomunitatea eta zabaltzen joango gara: Aralar Musika Eskola, Garapen Agentzia... Sei herri gara orain, baina Mankomunitatea ez dago itxita. Zein dira aldaketa nagusiak?

Alde batetik, bilketa puntuak desagertu egin dira, sei herrien artean 500-etik 300era. Baina, aldi berean, bilketaren maiz-

tasuna igo egin da. Jendea kexatu egin da edukiontziak urruti gelditu zaizkiolako, baina puntu gatazkatsu batzuetatik kendu egin dira edukiontziak. Tasak ere igo egin dira, eta herri batzuetan besteetan baino haundia goa izan da aldaketa.

Nola egiten da bilketa?

Oraingo bi kamioi ditugu eta horiek ibiltzen dira sei herrietan. Bi kamioi berri eta pabiloi berri bat erosteko esleipena egin dugu, baina bitartean, Iruñeko Mankomunitateak utzi digunarekin eta Goi-

zueta tiki batekin moldatzen gara. Langileak, berriz, lau kamioigidari eta administrari bat dira.

Puntu Garbia delakoak ere jartzekoak dira, ez?

Bai, hiru jarriko dira: Lekunberrikoa martxan dago dagoeneko, baina Goizueta eta Leitzakoak oraindik ez. Irailetik urte bukaera arte zabaltzea da asmoa. Produktu bereziak bilduko diren puntu finkoak izango dira: pinturak, pilak...

Zenbateko inbertsioa egin behar izan da?

Bi kamioiak erostea 340.000 euro kosta da, baina Nafarroako Gobernuak %70eko dirulaguntza eman du, eta pabiloia erostea 270.000 euro. Tasak kudeatuz, Mankomunitateak ordainduko du.

Etorkizunera begira bal duzue zerbait egiteko asmorik?

Arropak biltzeko edukiontziak jartzeko, edalontzi erabilgarriak egiteko eta uraren kanpaina egiteko dirulaguntza eskatu dugu, baina ezetz esan dute. Beraz, ikusiko dugu.

Zerbait gaineratuko al zenuke?

Zerbitzua bi kamioi berrien emateko pentsatua dago, eta oraingoak guztiz egokituak ez direnez, zailtasunak egon daitezke. Hortaz, urtarrilaren 1etik aurrera hasiko da benetan ongi zerbitzua, kamioi berriak etortzean.

HISTORIA → LEKAROZKO INSTITUTUKO IKASLEEN LANA

‘Frankismoaren garaiko Baztan’ protagonisten biloben ikuspegitik begiratuta azaldu dute

Erakusketa maiatzean izan zen ikusgai eta orain Geronimo de Ustariz fundazioak kudeatuko du

Baztan Frankismoaren garaian izeneko erakusketa zabaldu zen maiatzean Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Lekarozko institutuko

ikasleek, argazkiz, irudiz eta idatzizko testigantzak bilduz egindako lan mardula ikusgai izan zen eta baztandarren arreta piztu zuen.

Aitor AROTZENA

Duela 20 urte, Lekaroz Institutuko Gizarte Zientzien Departamentuak, ikasleen bidez, ahozko iturrien bilketa hasi zuen. Asmo handiko proiektua zen, eta lekukotasun hauen grabazioek gauza aunitz ahalbidetuko zituzten: baztandarren bizitzen

istorioak irautea, Errepublikan, Gerra Zibilean, Frankismoan eta Trantsizioan bizitakoak, desagertzearen dauden ohiturak berreskuratzea, eta hurbil litezkeen iker-tzaileentzat bertako euskalkien erregistroa uztea.

Helburu horiek bete direla uste du Juainas

Paul Arzak historia irakasleak eta erakusketaren koordinatzaileak. Bildutako grabazio kopuruak hori frogatzen du eta *Baztan Frankismoaren garaian* erakusketa, urte hauetako guztietako lanaren fruitu da. Lan honen bitartez, 1936tik 1975era doan garai gogor horretan,

gure inguruaren irudi eta idatzizko testigantzak ezagutu ditzakegu, eta belaunaldi zaharragoen kasuan gogora ekarri. Baztango euskararen bilakaeraren berri bideo batean eman duen Martin Gardek aipatu digunez, «honetako erakusketa hauek arras baliagarriak dira, gazteek his-

toriaren berri izan dezaten. Bortizkeriaren bitartez gure borondatez kanpoko izaera bat hezurretaraino sartu zigten eta hori gainditzea gure ondoko gazte belaunaldiaren lana izanen da».

Eguneroko handitasun eta miseriari, familia, lana, etxea... dira



Lekarozko ikasleek osatutako erakusketak ikusmina piztu zuen Baztanen.

MARTIN GARDE



Martin Garde

«Historia ez errepikatzeko, ezagutu egin behar da»

Historia errepikatzea ez dugu inork nahi, baina ez errepikatzeko lehenik eta behin ongi ezagutu egin behar da. *De la esperanza al terror* libururako lan egin nuen Baztanen eta kontaktu hagitx aberasgarriak izan nituen. Baztanen lau emakume izan ziren heriotzera zigortuak eta batto Bittori Etxeberria elizondarra izan zen. Barri de nuen eta ordu aunitz pasatu nituen berarekin eta sakonki sartu nintzen Baztanen gerra inguruan gertatu zena eta bere ondorioak ikertzeraz. Isiltasun eta iluntasun handia zegoen duela 30 urte Baztanen eta jendea oraino izitzen zen gai honetaz solasterakoan.

Baztanek muga izaterakoan bi gauza nahasi ere egiten ziren: kontrabandoaren mundua eta ihes egiten zutenen mundua. Nik ezagutzen dut jendea kontrabandoan aritutakoa eta berdin zitzaien 20 kilo kobre edo bi pertsona pasatu, beraien dako lana zen. Hori errealitate iluna da eta zaila da informazioa ateratzea. Baztanen espiotza sare bat bazen eta tartean baziren baztandarrak

ere, baina izenak ezin ziren eman. Baztanek isiltasun hori barneratua zuen eta beldur handia zegoen. Gerra Zibilaren ondotik Munduko Gerra etorri zen eta Iparraldetik alde honetara ihesean zetozenak bideratu behar zureb. Nafarroan kasik gerrarik ez zen izan, baina ez idurian, gerraren ondorioak kasik 1970. hamarkadaraino iraun zuten. Ordura arte ez zen gerrari buruz solasik egiten eta historia ezagutzen da batzuk ezagutu dugulako, ihes eginak, Lekarozko kolegiotik 30 bat ikasle bota zituzten kanpora, baina ez militarrek, gure aginte-gizonek baizik. Baztango eta inguruko istorioa, senideen tartean sufrimendu handiarekin eraman den istorioa da. Gaur egun badira gauzak oraino ez direnak agertu. Desagertuak, trifulka izugarriak... badira garbitu ez diren gauzak eta garbitzen ez direnak oraindik familietan beldurra badelakoz. Bortizkeriaren bitartez hezurretaraino sartu zigten gure borondatez kanpoko izaera bat eta hori gainditzea gure ondoko gazte belaunaldiaren lana izanen da.



Argazkiak: TTIPI-TTAPA

anen.

erakusketaren oinarri, eta kanpotik ezarritako egiturek ere (eliza, aginte eta eskola), eguneroko bizitza eta kultura zein neurritaraino baldintzatzen ahal zutenaren adierazle.

Garai horietako berzte alderdi xeheagoak, baina ez horregatik garrantzi guttiagokoak ere jasotzen ditu erakusketak: frankismoaren aurkakako gerrilaren ekintzak haranean, bestak, itxaropenik gabeko bizitza batean ihesbide bezala irakurritako komikiak, Francok mugan eraikitako gotorlekuen ondare arkeologikoa, Gorrarmendiko base estatubatuarren eragina... Gerra Zibilak Baztanek izan zituen ondorioak ere ezin dira ahantzi, 40 urteko diktadura eta gerra irabazi zutenen aginte osoa ekarri zuen gerra krudela. Euskararen egoeraren ikerketa eta frankismoaren aitzinean euskararen erresistentzia ere jaso dute. Orai, Geronimo de Ustariz Fundazioak kudeatuko du erakusketa.

KONTRABANDOA

«Doneztebeko Guardia Zibilak Zubietan zazpi pertsona antze-man zituen eta ihesean beraien pake-teak utzi zituzten. Nylon-hariko 506 bobina zituzten barnean. Elizondoko Guardia Zibilak alttoa eman zion pertsona bati eta nylon-hariko 78 bobina utzi zituen. Hauen balioa 40.000 pezetakoa zen. Berzteena ez da kalkulu-tu». Hala dio prentsa errekorre batek.

P LERROA

Gerra Zibilaren amaieratik, Franco jeneralak Pirinioetako muga indartu nahi zuen. Nafarroan, 46 «erresistentzia gune» sortzea aurreikusi zuten. Batzuk, Baztanen eraiki behar zituzten: Urdazubi, Arizkun, Otsondo... Gune bakoitzak 19 milioi pezeta balio zuen. Lanak 1957an bukatu ziren, proiektu faronikoa alferrikakoa zela ikusita.

NAZIENGANDIK IHESI

Xabier Laborde Noguesek zuzentzen zuen sarea izan zen naziengandik ospa egiteko printzipala, Ezpeleta-Dantzarinena -Elizondo ibilbidearekin. Pilotu erreskatatu batengatik ematen zen 1.500 pezetako saria tentagarria zen, arriskua, ordea, arras handia zen: harrapatutako tokian bertan 2 mugalari hil eta 22 kontzentrazio kanpoetara eraman zituzten.

JUAINAS PAUL ARZAK

«Arbelean azaldutakoa etxean gertatua bilakatzen da, hori aberasgarria da»

Hainbat urtetako lana da eta Frankismoari dagokiona, bereziki 2003tik 2007ra DBHko laugarren mailako ikasleek bildutako testigantzetan oinarritzen da. Testigantza horiek erabiliz aipamen labur batzuk bildu ditugu erakusketan, bizimodu arruntaren puntu nagusiak eta bere bilakaera agertzen dutena. Ikasleek beraien gurasoei eta gehienetan aita-txi-amatxiei elkarriketak egin dizkiete eta zenbait gauza harrigarriak suertatu zaizkie: telebistatik gabe bizitzea, autorik gabe... Transizioari buruzko elkarriketak ere badaude.

Adinak hori ezagutzera eraman nau, eta badakit garai batean ez zeudela gaur hain arruntak diren tresna horiek guziak (telebista, kotxea...). Hori da gazteak gehien harritzen dituen. Etxeetan ez dago zaharren kontakizunak aditzeko ohiturarik, ez diegu kasu handirik egiten Gerra Zibileko kontakizunei, baina orduko eguneroko bizitzaz aitatxi-amatxiekin solasteak harridura sortzeaz gain, hurbiltasuna ere eragin die ikasleei. Hurbiltasun hori somatu dut audio-zinta entregatu eta handik bi urtera edo kopia bat eskatuz etorri direlako. Hori adierazgarria iruditzen zait. Arbelean edo eskemen bidez erakutsitakoa, Errusian gertatu zena... aldamenen eta

etxean gertatu zena bilakatzen da eta hori aberatsa da.

Beste atal bat, ikasleek baino irakasleek prestatutakoa da, Mikel Ozkoidi, Mikel Rodriguez, Iker Frias, Iñaki Arrese eta Ana Gonzalezek egindako lana. Gai bereziak dira edo espezializazio bat eskatzen dutenak: makiak inguruan izan zuen eragina, Frankismoaren interpretazioa komikien bidez...

Fernando Mendiola Frankismoaren esklaboak atalean lagundu digu eta jende aunitz zirikatuta eta mugiarazi dugu: Martin Gardek euskararen bilakaera Baztanen azaldu zigun elkarriketa baten bitartez, Lander Santamariak Gorrarmendiko basean amerikarrek Baztanen izan zuten presentzian lagundu digu...

Honen guziaren helburua hainbertze urteetako materiala ez galtzea da, material guzia digitalizatua dago eta zenbait kasutan transkripzioa egina ere bai. Horrekin guziarekin artxiboa osatu eta Lekarozko Irakasleendako Laguntza Zentroaren esku jarriko dugu, ikertzaileen edo kuriositatea duen jendearen eskura.

Erakusketa honetan Geronimo Ustariz Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntza izan dugu eta herriz herri eramateko asmoa daukagu.



Juainas Paul Arzak, erakusketaren koordinatzailea.

**Nire txanda**

Luis GARDE

Larroja

Aspaldian irakurri nuen, eta ganbarako bazterren batean gorde. Txinako herrixka batean gertatu zen. Hurbil-hurbil bazuten harrobi zikin eta zaratatsu horietako bat. Ateratzeko harririk geratzen ez zelarik, itxi zuten harrobia; mendia, noski, xehatua utzita. Paisaia berreskuratzeke zer egin ez zekite-la honako hau bururatu zitzaizen bertako txinatarrei: mendia berdez margotzea. Erran eta egin; hamabi herritarrek ekin zioten lanari. Sei aste pasa eta gero berdeberde geratu zen harrobia izan zen mendia. Argazkian errotulagailuz pintatua zirudien. Denak kontent. Hori bai: kontuak ateratzeko tenorean, merkeago arbolez birlandatzea atera izan zitekeela ohartu ziren. Zergatik oroitzen naiz pasadizo honetaz? Egunotan paisaia gorritz pintatzen ari zaizkigu. *Larroja* eta betiko espainiar prepotentzia nazkante hori. Hobe harrobiaren kolorea.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Egun gorriak

Gorritxoan hiriburuan ez ezik gurean ere besta gorriak ditugu egunotan. Zapi gorriak jantzi eta behingoz negu gorria gibelean uzten badugu, egutegian gorritz markatutako astean, bi gorri edan (adibidez) eta lotsaz gorritu gabe dantzan eta saltoka ibiliko gara, aurpegia gorri-gorri egin arte. *Gaixoa Ni* kantatzerakoan begiak gorrituko zaizkigu. Heldu den astean gorriak ikusiko ditugu!

Nabarmentzekoak

**Oskar MINDEGIA**
Doneztebeko kirol zinegotzia

Herriko kirol eskaintza zabalaren ordezkari, kirol zinegotzi ez ezik Errekako judo eskola emankorraren irakasle den Oskar Mindegia botatzen San Pedro bestetako txupinazoa.

**Patziku PERURENA**
Idazle goizuetarra

Mikel Laboak Goizueta ezagutarazi zuen Tra-bukoren kantarekin eta kanta horrek gibelean duen historian murgilduta Patziku Perurena, bere azken saiakera liburu ederrean.

**Elena URTASUN**
'Baztanen erosi fite' irabazlea

Baztango Bertan merkatarien elkartearen egin-dako zozketan sariduna suertatu zen elizondarra. Ekainaren 19ko goizean, 2.000 euroko erosketak egin zituen elkarteko dendetan.

Atzera begira → 1997.07.17 / TTIPI-TTAPA 210. zbk



Amaiurko borroka gogoan, konmemorazioa

1522ko uztailaren 19an izan zen Amaiurko azken borroka. 1922an oroitarria eraiki zen eta 9 urte beranduago dinamitaz bota zuten. 1982an, azkenik, oroitarri berritua inauguratu zuten bigarren aldiz. Beraz, borrokaren 475. urteurrena, lehen oroitarria egin zeneko 75. urteurrena eta bigarren inaugurazioaren 15. urtea ospatu zuten 1997an Amaiurren. «Gaztelu mendiko oroitarria euskal askatasunaren sinboloa bihurtu da» adierazi zioten TTIPI-TTAPAri Juan Mari Aleman eta Pello Etxeberria ekitaldiaren antolatzaileek. «Hainbat erakunde, karrikek... bereganatu dute Amaiur izena, harrotasun handiz», azpimarratu zuten.



Argitaratzailea Ttiipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttiipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebea...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	37€	Europa	55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	31€
Ipar Euskal Herria	55€	Amerika eta Australia	123€	Leitza	15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Adierazpen askatasuna

Xanti BEGIRISTAIN

Aurten Iruñeko peñek erabaki dute sanferminetan pankartak beltzez margotuta ateratzea, Udalaren jarrera gogorraren aurrean. Nik uste dut jokaera hori guztiz justifikatua dagoela eta hiriko jende gehienak gainera jakinen duela ulertzen inolako arazorik gabe.

Iruñeko peñek, nik dakidanez, beti egin izan dituzte mota guztietako errebindikazioak beren pankartetan, sanferminetan, bai behintzat demokrazia garaian, frankismo luze eta ilun osoan zehar ez dakit oso ongi errepresioaren bat izan ote zen inoiz gai horretan—horrela gertatu izan balitz ere, ez zen oso harriagarria izan, kontuan hartuta frankismoa diktadura zital, garratz eta ankerra izan zela—, baina, gaur egun, Iruñeko udal gobernuak adierazpen askatasuna ezabatu nahi izateak ez du inongo justifikaziorik eta zentzurik, non eta bere burua diktadoretzat hartzen ez duen.

Esan daiteke, Iruñeko peñek beren pankartetan errebindikazio politiko eta sozialak egitea, dagoeneko, ohitura eta usadio osasungarria dela, eta gizarteak inolako erreparorik gabe onartua duela. UPNren udal gobernuak egundoko demokrazia-gabezia erakusten du, Iruñeko peñei debekatzerakoan pankartetan errebindikazio politikoak eta bestelakoak egitea. Zuzen-zuzenean adierazpen askatasunaren aurka atentatzen du, beste askotan bezalaxe, zorioneko terrorismoaren aldeko apologia egiten dela esanez, eta aitzakia horrek beti balio dio, batere lotsarik gabe, hainbat eta hainbat giza eskubide kolpe batez ezabatzeko. Horrek demokraziari berebiziko atzerakada dakarkio; demokraziaren kontzeptua bera ahuldu eta indargabetu egiten du. Gaia ez da inolaz ere txantxetako, batez ere aintzakotzat hartzen badugu, jadanik bi peñetako bi kidek joan behar izan dutela auzitegira deklaratzera.

Kontuak kontu, egoera tamalgarria da. Sanferminetako historia osoan, aurtengoa izan den lehenengo aldia, peñetako pankartak beltzez margotuta ikusiko dituguna, irudirik gabe, marrazkirik gabe, kolore anitzik gabe, alaitasunik gabe, umorerik gabe, baina ez errebindikaziorik gabe. Aurtengoa izan den baita, Barcinak horrela nahi ez bazuen ere, inoizko aldarrikapen eta eskabiderik handiena.

«Sanferminetako historia osoan, aurtengoa izan den lehenengo aldia peñetako pankartak beltzez margotuta ikusiko dituguna, irudirik gabe, kolore anitzik gabe, alaitasunik gabe, umorerik gabe, baina ez errebindikaziorik gabe»

Lizuna lotsagarria

Deñe ABUIN, J.M. MERINO, J.F. ALETXA, Tomas MAIA
(Lesakako Herriko Etxeko Onin udal taldea)

Gure atsekabea adierazi nahi dugu, ezetz erran behar diogulakoz bidali diguten gonbidapen sobera eskuzabalari; honela dio gonbidapenak: «Lesaka hiri txit noble eta leialeko Alkateak atsegin handiz gonbidatzen zaitu zaindariaren bestak direla-eta eginen den senidetasun-bazkarira»... Badiugu hainbat arrazoi gonbidapenari uko egiteko.

1.- Senidetasuna ez delakoz inon ageri gure Herriko Etxean; hori parte-hartzea eta talde-lana bultzatzu lortuko litzateke eta ez zuek lan egiten duzuen bezala, bigarren indar politikoari parte-hartzea eragotziz eta informazioa ukatuz. Bestak antolatzeke ere ez gaituzue kontuan hartu, zer esperatzen ahal dugu, beraz, Udalari dagokion bertze edozein gaitarako?

2.- Bestetako programan, alkatea krisialdiagatik kezkatuta ageri da, baina, hala ere, bertze besta-egun bat gehitu du. Gure alkate jauna ez da hagitx koherentea. Horretaz gain, aipatzen du 2010eko aurrekontuetan bere taldeak onartutako 63.000 euroak ez dituela gainditu. Erran beharra dago hori dela 2009rako zegoen kontu-saila bezalakoa, baina badago alde «txiki» bat: Udalaren defizita lehenengo urtekoaren bikoitza da; horregatik, beharrezkoak ez diren gastuak murrizten hasi behar litzateke. Bestetako bazkaria kentzea proposatzen dugu eta ohiko programan izan den egun kopuru bera uztea; hala, aurrekontua onartuta dagoen bezala exekutatu gero, abenduan izan den 700.000 euroko defizita murrizten hasten ahal da. Bere agurrean, jarri behar zuen zenbat igo behar dituen zergak eta herritarrek zenbat ordaindu beharko dugun, ea horrela bestak alaitzen dizkigun.

3.- Gurea baino handiagoak diren eta ekonomikoki aukera gehiago dituzten bertze udal batzuek, lunch bat jarri dute politikariekin egiten den senidetasun-bazkariaren ordean. Ez da deus gertatzen; garai hobeak etorriko dira. Hala ere, uste baduzu bazkari hori egitea beharrezko dela, joan eginen gara, baldin eta herritarren kontura bazkaltzen ez badugu: Bakoitzak berea ordaintzen badu, edo Alkate jauna, zuk ordaintzen baduzu, hilero jasotzen duzun dirusariarekin.

4.- Gonbidapenari dagokionez, erran nahi dugu harritu egin gaituela alkateak eta Lesakako Herriko Etxeak gonbidapena egiteak; argi uzten du Herriko Etxetik kanpo egonen bagina bezala tratatzen gaituzuela. Bertze urte batez esperatu beharko duzue gonbidapena horrela egiteko, gutaz paso egiten baduzue ere, oraindik Udalaren parte baikara.

Aukera aprobetxatu nahi dugu Fermin Alzugarai kidea oroitarazteko guregana hurbildu diren herritarrei, udal-langileei eta -teknikariei eskerrak emateko; bestak nahiz Herriko Etxea ez dira berdinak izan den bera eta bere aholkuak izan gabe. Une tristeak dira, baina haren ereduari jarraitu behar diogu eta «aitziner jo». Besta hauetan horrelako uneak edo antzekoak pasatzen ari zaretenentzat, besarkada bat eta eutsi horri!

Irakurleak mintzo

Labarquilla, Espin, Azpiroz eta Roig jaunei bihotzetik eskutitza: Saverako 56?

Saverako langileen emazte eta bikotekideak

56 edo berdina dena: Saverako langileria-ren %43a. Horiek dira zenbakiak: 56 = %43a. Zenbaki hutsak eta hotzak gizartearen zati haundi batentzat. Zenbaki hutsak eta hotzak agian ere zuentzat, Labarquilla jauna, Espin jauna, Azpiroz jauna, Roig jauna.

Guretzako, berriz, ... guk badakigu, ezagutzen ditugu Saverako langileek dituzten aurpegiak. Ezagutzen ditugu Saverako langileen izen-abizenak. Ezagutzen ditugu beraien emazte-bikoteak, beraien seme-alabak. Badakigu «zenbaki» horiek bizi-proiektuak, sentimenduak eta ilusioak dituztela, izan ere gehiengoa 30-45 urte bitarteko langileak baitira; agian zuenak bezalakoak izango direnak, Labarquilla, Espin, Azpiroz eta Roig jaunak. Ez da desberdintasun haundirik izango aipaturiko gauza horietan guztietan, momentu hauetan Saverako langileria bizitzen ari den egoera kezagarria baizik. Labarquilla jauna, Espin jauna, Azpiroz jauna, Roig jauna saia-

tu al zarete momentu batez gizon, emakume, familia horien azalean jartzen? Labarquilla, Espin, Azpiroz eta Roig jaunak, pentsatu al duzue momento batez zer sentituko zenukete zuen familiak edo zuek izango bazinate egotera horretan egongo liratekeenak? Ariketa hau egin al duzue? Nola sentituko zinatekete? Zer egingo zenukete?

Badakigu ez garena esne mamitan bizi. Badakigu neoliberalismo basati honen garaian bizitzea tokatu zaigula: zenbakiek, diruak, etekin ekonomikoak eta indibidualtasunak; pertsonen, elkartasuna eta errukitasuna bezalako balorei garaitu dieten garaia. Ez da urruti gure buruan Funvera lantegiak bizi zuen antzeko egoera 47 langileren kaleratze emaitzarekin. Norbait oroitzen al da 47 familia horiekin? Lantegi haun-



Bota bertsoa

Iban GARRO (Lesaka) • Doinua: Naufragoarena

Futbola mundiala!

Baloia buruz jo eta langa ukitu ondoren, harmailletara, bi eskuak gora, gol! oihukatu lagun denen besarkada nahiz behar izan prorroga Ghanak AEB kanpora! Jainkoa ere poztuko da larogei ta hamar minutuz ttiki dena handien gisara tarte horretan araua behintzat guztiontzat berdina da.

Jainkoaz egin dudanez broma burura etorri zait Maradona, hain zuzen ere leporik gabe exerlekuan dagona. Laguntzaile eta guzi Argentinak badu grazi aurten baietz irabazi! Zure «eskuaz» bataiatutik Milito, Messi, Grondona. Izarra zinen izarra zara sekula urtuko ez den horma.

diekin batera ere, gure zonaldean enpresa txikiak, dendak eta abar luze bat pairatzen ari diren egoera jasanezina aipatu beharrean gauden, izan ere, aunitzetan haundien eskutik doazelako. Denak jarraitzen du ezer gertatuko ez balitz bezala, ez ikusiarena egiten dugu.

Bai, latza da Bortziak eta Berako jende xumeari bizitzea tokatzen ari zaigun egoera. Agian denok hausnaketa sakon bat egin behar genuke eraikitzen ari garen gizarteaz eta kezkarriagoa dena, gure seme-alabei uzten ari garen etorkizunaz. Zer etorkizuna?

D. Labarquilla jauna, J.V. Espin jauna, R. Azpiroz jauna, J.M. Roig jauna benetan ez al dago bertze irtenbiderik? Gu, «zenbaki» horien emazte-bikotekideok, baiezkoan gaude. Borondatea eta gizatiartze pixka bat bertzetik ez dira behar.

Hor barna jasoak

– “Ez eraman haserterik hilobira, Elena, ez du merezi”, esaten zidan Isidro.
– Bakardadea da nire salbazioa, nire kobazuloa. Benetan neurea sentitzen dudana gauza bakarra... Bertan sentitzen naiz libre, bertan naiz salbu.
– Baina hor ere amore eman behar izan dut, hor ere errenditu egin behar. Bizitza errendizio txikiz osaturiko guda da...
– Jada ez dut zoriontsu naizen itxurarik egin

beharrik... kanpoko antzerkian parte hartzeko gogorik.
– Besarkatu egin dugu elkar. Modu ortopedikoan, baina besarkada... “Barkatu”... bera bakarrik aterata da.

«Musika airean» liburutik Karmele Jaio (ELKAR)

Elenak (amonak) etxeko lehiu bazterrean ematen du eguna, kanpora begira, mundu honetan egin behar-rekoak eginda dituelakoan.



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Nire adinekoekin ateratzen segitzen dut, baina aldi berean, bikain moldatzen naiz gelakoekin ere. Horretan zortea eduki nuen [Lehen Hezkuntzan ikasturte bat aurreratu zuten] (...) Nota altua atera nahi nuen, egin nahi ditudan ikasketetarako sarbidea ziurtatzeko (...). Argi nuen zientzietako ikasketak egin nahi nituela. Matematika eta Fisika gustatzen zaizkit, baina ez naiz teoremak asmatzen dituzten buruargi

horietakoa (...) Telekomunikazioak, Informatika eta Aeronautikaren artean, bakoitza zertan den begiratu nuen pixka bat eta erabaki egin nuen (...) Beti eskura ez dugun hori nahi izaten dugu eta betidanik erakarri izan nau hiri batean bizitze horrek, baina beharbada gero ez zait gustatuko».

Jon Ander BENGOTXEA
16 urteko Leitzako ikaslea
D. NAVARRA, 2010.07.01

11 galdera labur

Realaren partida bat ikusi, bertsotan ari edo besta on bat bota. Zer duzu nahiago?

Realaren partida bat ikusi.

Nola ospatu duzu Realaren igoe-ra?

Ospatu gustura ez, etxean nengoe-lako. Baina bertzeak bezala gustura gelditu naiz.

Zeinek erakutsi dizu gehiago bertsotan: anaiak ala osabak?

Osabak.

Osaba Bittorren hagitz zalea omen zara. Hala al da?

Bai, bai. Beregandik heldu zait bertsoetarako afizio hau, ber-rari adituz.

Aurten lehenbiziko aldiz parte hartu duzu Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Zer moduz ikusi duzu zure burua?

Gustura gelditu nintzen. Ez nuen uste hain lan ona eginen nuenik eta ongi ikusi nuen nire burua.

Txapelketa batean anaia eta biak bertsotan ari bazarete, kontrario ikusten al duzu anaia?

Bai, bai,

oholtza gainean denak kontrario. **Bertsotarako lagunik onena zein da zuretzat?**

Osaba.

Basozain ala bertsolari ikusten duzu etorkizunean zure burua?

Bertsolari bezala erranen nuke.

Iturengo bestetako onena zer da zuretzat?

Herri-bazkaria.

Zer dute faltan eta zer soberan Iturengo bestek?

Faltan, bertze egun bat, eta soberan... ez dakit.

Amets bat?

Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabaztea.



Egoitz GOROSTERRAZU → Iturengo gaztea

XATURETXEA
JATETXEA
T. 948 637 260 - LESAKA

sarriho
gastronomia dindaga
p' de estegira 25 bajo 34700 Bera (Navarra) L948 63 08 99 www.sarriho.net

elika
Dietetika... elikadura
Iñaki Andueza Lantz
Itzea, 6 beheko - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

DENDA GOYA
UZTAILEAN LANGILEA JUBILATZEN DELAKO
DENDA TTIKITU BEHAR DUGU %50 DESKONTUAK
eta %2ko deskontua Club mas por ti txartelarekin
GUERE TXOLLOEN TXOKOA
Gaitzak - Gonak - Jauntziak
Kamisetak - Burdin tresneriak
Txubaskeroak - Txamarraak
Alfonbrak - Blusak - Batak...
BETIKO PRODUKTUAK
Kortinen konfekzioa
Lanerako arropa - Toallak
Maidireak - Mantak
Edredoiak - Nordikoak
Nordikoen fundak
Kapelak - Euskal arropa
Lanparak - Menajea
Oparitzeko detaileak
EZ GALDU AUKERA HAU ETA ZATOZ GURE TXOLLOAK BILATZERA ZERBITZU PERTSONALIZATUA, KALITATE ETA PREZIO EZIN HOBEAN KONPROMISORIK GABE, ZATOZ. EZ ZARA DAMUTUKO
Aitzate, 5 - BERA
T. 948 630 083

zalain
JATETXEA - RESTAURANTE
Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
W. www.zalain.com

LANA

GREBA OROKORRA → EKAINAREN 29AN

Segida handia izan duen greba

Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldean izan du eraginik haundiena

TTIPI-TTAPA

ELA, LAB, EHNE, ESK, STEE-EILAS eta HIRU sindikatuek ekainaren 29an deitutako greba orokorrak segida zabala izan zuen TTIPI-TTAPAk hartzen duen eskualdean. LAB sindikatuko Koldo Saenzek «banaz bertze %90eko izan duela» aipatu zuen eta ELA sindikatuko Jose Mari Arribillagak, bere aldetik, «joan den urteko maiatzaren 21ekoaren parekoa» izan zela.

Eskualdeka, grebaren eragina ezberdina izan zen. **Bortzirietan** eta **Leitzaldean** kasik erabatekoa izan zen geldialdia. **Bortzirietan**, lantegi nagusienetako ateak, Lesakako Arcelor-Mittaledo Zalain Transformadosekoak, itxiak egon ziren eta ez zen produkziarik izan. **Leitzako** Sarriopapel ere itxia egon zen. Salbuespenak salbuespen, industrialdeak geldirik zeuden. Komertzioetan ere, **Lesakan** %90 inguruk itxi zuen, **Beran** %60ak eta **Leitzan** ere kasik den-

da guziek ez zuten atetik ireki. Administrazioen arloan, **Bortziriak**, **Mallerreka** eta **Leitzaldeko** mankomunitate eta udal bulego guziak ere itxita egon ziren, baina guttieneko zerbitzuak errespetatu ziren.

Mallerrekan kasik lantegi eta komertzio guziki itxi zituzten, baina kontuan hartu behar da Donezteben San Pedro eguna zutela.

Baztanen, langileen erditsuak segitu zuen greba. Zenbait lantegi eta komertzio itxita egon ziren, baina bertze batzuk normaltasunez lan egin zuten.

MANIFESTAZIOA LESAKAN

Greba egunari akabaila emateko, 400 bat lagun bildu ziren Lesakan, *Etorkizun duin baten alde*, *Baztan Bidasoa bizirik* lelopean egindako manifestazioan. ELA, LAB eta EHNEko ordezkariak eraman zuten pankarta nagusia, baina horrez gain, Saverako langileek eta Lekarozko Aroztegiako egitasmoaren kontrakoek bere eskariak ere karrikatu zituzten. ELA eta LABeko ordezkariak grebak izandako segida azpimarraitu zuten eta etorkizunean ere elkarrekin mobilizatzeke deia egin zuten.



ARGAZKIAK: HITZA ETA TTIPI-TTAPA

Goiko argazkian Leitzan egindako manifestazioa, eta azpikoan Lesakako manifestazioan, Saverako langileak.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Saverako EREa ez onartzea eskatu dute Bortzirietako alkateak

Bortzirietako alkateak eta Saverako enpresa batzordea Nafarroako Gobernu Lan Departamentuko zuzendari orokorrekin bildu ziren uztailaren 1ean. Hasiera batean Jose Maria Roig kontseilariarekin biltzekoak ziren, baina dirudienez agenda bate xamarra eta ezin izan zuen aipatu ordezkariarekin bildu. Aitzinetik, alkate eta zinegotziek prentsaurrean adierazi zutenez, Gobernua «pieza klabea da Saverako ERE honen ibilbidean, berak izanen baitu azken hitza, dirudien bezala aitzinetik akordiorik ez bada» eta horregatik hainbat eskari egin zituzten, «Bortziriak hiltzen ari dela» ohartaraztearekin batera. Saverako EREa «deslokalizazio garbia» dela, eta «produktzioa munduko bertze plantetara eraman dela» ere salatu zuten. Bortziriak eta Baztan-Bidasoa osorako industria eta enplegu plan bat prestatzeko exijitu zioten eta horretan laguntzeko, industria guneen inbentarioa aurkeztu zuten, gune hauek lantegiak jartzeko zer aukera dauden azter dezaten. Jakinarazi zutenez, «martxan dagoen 2010 Planean 14 milioi inbertituko dira industria-guneetan, baina bakar bat ere ez gure inguruan». Horrekin batera, zera gaineratu zuten: «Legasako lantegia Lesakara aldatuz geldituko den 200.000 metro koadroko eremua, edo Lesakako lantegian Luberrondo inguruan erabiltzen ez diren 14.000 metro eta ondoko bertze 12.000 metro daude, baita Zalain eta Alkaiagan oraindik erabili gabe dauden nabeak ere, Etxalarko Arrakoitz inguruko industrialdea...».





BESTIAK

2010

ITUREN uztailaren 16tik 19ra
ELIZONDO uztailaren 23tik 26ra



uztailak 16 ORTZIRALA

20:00 TXUPINAZOA

Ondotik Kalejira trikitilari eta txistulariekin

20:15 Iturengo dantzarien saioa plazan

00:30 Dantzaldia GAUBELA taldearekin



uztailak 17 LARUNBATA

10:00 Kalejira trikitilari eta txistulariekin

11:00 HAUR JOKUAK

txirrista, piloten etxea, giza-tiragoma...

16:00 HAUR JOKUAK

txirrista, piloten etxea, giza-tiragoma...

18:00 Txokolate jatea herriko plazan

17:00 MUS txapelketa

18:00 TXOKOLATE JATEA herriko plazan

20:00 Dantzaldia DANTZADI taldearekin

00:30 Dantzaldia DANTZADI taldearekin



uztailak 18 IGANDEA

10:00 Kalejira trikitilari eta txistulariekin

11:00 MEZA NAGUSIA

13:00 Herritarren arteko PILOTA PARTIDAK

SEIN - FAGOAGA

SALABERRI - SALDIAS

ELIZALDE-CRISTOFER

UNTXALO - ALTXU

U.MADARIAGA - J.MADARIAGA

ORONOS - MINDEGIA

18:00 HERRI KIROLAK

20:00 Dantzaldia KOLDO akordeolariarekin

00:30 Dantzaldia KOLDO akordeolariarekin



uztailak 19 ASTELEHENA

10:00 Kalejira trikitilari eta txistulariekin

10:30 PLATER TIROKETA herritarrentzat.

14:30 HERRI BAZKARIA, bertsolariekin.

Ondotik Kalejira Miriam eta Arkaitzen eskutik.

20:00 Dantzaldia AGERRALDEekin

00:30 Dantzaldia AGERRALDEekin

Ondotik Besten akitzea



ELIZONDO uztailaren 23tik 28ra




uztailak **23** ORTZIRALA

19:00 Haurren **Herri krosa**
20:00 Helduen **Herri krosa**



20:00 Dantzaldia Ziga plazan
Santxotena akordeolariarekin
23:30 **Kontzertuak:**
Sutan
Governors
Esne Beltza
Dj Mokordo eta Tirri&Tery (BZAM)



ELISA TAXIA

677 399 302 (8 PLAZA + GIDARIA)

ongi-
gustu
bestak!

ESKIZ
INFORMATIKA ZERBITZUAK

EKIPOEN SALMENTA-KONPONKETAK
WEB ORRIAK - IKASTAROAK
www.eskiz.es - info@eskiz.es
Tel. 948 581 822 • Erlategi, 4 • ELIZONDO

ongi-
gustu
bestak!

da

astizanaiak
ZURGINDEGIA
Zurgintza lanak orokorrean

Aldude etorbidea, 5 • ELIZONDO
Tel. 699 325 449 - 948 580 886

Dia % SUPER-BAZTAN

Berba seriozitatez eta dabilazuz!

Dia % Santiago, 60 • ELIZONDO • Tel. 948 580 453

BICLAM
ileapaindegia

Braulio Irlarte, 58 • ELIZONDO • T. 948 581 874
Asteartetik ostiralera 9:00-13:00 / 15:30-19:30
Larunbatetan 8:00-18:00

ALMACO BAZTAN GRUP GATTIA

KOMUNERAKO BEHAR DUZUN GUZTIA
BURDINDEGIA/LANEKO ARROPA
ERAIKUNTZARAKO MATERIALA
MAKINERTIAREN ALOKAIKUA
EKONOMIKAK/ESTUFAK
ZERAMIKA/PARKET



*Almaco Baztanen
beti berritzen !!*



*Etorri exposizio berria
ezagutzera !!*

Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857



ETXEBIZITZAK

165.000€

tik

B.E.Z. barne
(3 GELA+GARAJE+GANBARA)

BAZTAN BERRI PLAZA Elizondo

J B Iturria
CONSTRUCCIONES

Mendinueta kalea 6, baxua
Tel. 948 580 304
info@jbiturria.com
www.jbiturria.com

OPOCA Elizondo



*Pisu edo baserriak zaharberritu,
txaletak eraiki,
eraikin zaharrak birgaitzen ditugu...*



uztailak 24 LARUNBATA


Bezpera

- 10:00 **Futbol 7** txapelketako finala
12:00 **Txupinazoa** eta Baztan-zopak



Argazkiak: ONDIKOL

- Ondotik** Konpartsarekin herri itzulia
14:00 Errepresaliatuen aldeko brindisa eta herri-bazkaria txoneztan
16:00 Haurrendako **margoaldie**
16:00 **Olinpiadak**
17:00 Pilota Partida Baztan Pilotalekuan (Pilotari profesionalak)
17:30 **Voleibol** Open Elizondo
18:00 Behi KK



- 19:00** Kalejira "Presoak Borrokan, Elkartasuna" (Txoznetatik)
19:30 Karrikadantzan Elizarat
20:00 **Salbea**
20:30 Munduko plateren **dastaketa** eta **Rantxerak** Plazan
00:00 Dantzaldia **Jalisko Band** taldearekin

Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa
Burdina eta aluminioa F. Joakint Iriarte, 5
Tfnua: 948 580 337
ELIZONDO

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 lurña · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

harategia **Esarte**
ELIZONDO 948 580 125

ARKUPE
Gozotegia · Txokolategia

Txokolatea, urrazkoa, almendrazkoa, beltza eta xuria.
Tabletak, bonbolak, trufak, Txokolate konfitatua.
Tartak, etxeko izozkiak, pastelak pastak, miniaturak, bolloak...

KAFETEGIA

Elizondo - Tel. 948 452 393
Irurita - Tel. 948 452 021 - 948 580 059
info@arkupegozotegia.com
www.arkupegozotegia.com

• Olioak
• Akiurelak
• Grabatuak
• Eskulturak

AUZA

GALERIA - EXPOSICION

Ongi pasa bestak!!!
Felices Fiestas!!!

Tlfnoak: 948 580 046 - 609 222 181

Berekoetxea Gotzain, 2 (elizaren ondoan) ELIZONDO

Ongi pasa bestak!

libreria

nafarpress

liburudenda

Jaine Urutia, 43 • 948 580 902 • ELIZONDO

MAITE PETRIRENA

ASEGURU AGENTZIA

Allianz

Sankulu plaza, 18 boko
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tel. 948 452 394

arteka

arkitektura arquitectura

Tel. 948 580 610
Fax 948 452 434
info@artekabaztan.com

Plaza Dr. Balda 1-1. A
31700. Elizondo Nafarroa

Baztan

Panifikadora

Edari banatzailea:

Coca-cola, San Miguel
Insalus, Gurutzeta sagardoa
Ardo berexiak...

Berekoetxea Gotzain, 3 ELIZONDO
Tlfnoak: 948 580 305 - 948 580 138

ongi pasa bestak

Ostatu • Jatetxea

LEKUBERRIA

Bar • Restaurante

07:00etatik aitzinera irekia

Santiago, 43 behea
ELIZONDO
Tel. 948 45 26 25



Esne Beltzaren kontzertua Elizondon

Uztailaren 23an, ortziralarakin

“Gu zuzeneko taldea gara, ongi pasatzera eta ongi pasaraztera goaz kontzertuetara eta hori nabaritzen da”

Aitor Zabaleta 34 urteko leitzarria eta Iban Zugarramurdi 35 urteko aranztarra, Esne Beltza taldeko musikariak dira. Santio bestetako ortziralean kontzertua eskainiko dute, berriki argitaratu duten *Noa* diska aurkeztuz. Biek ibilbide luzea egin dute musikaren munduan. Iban Zugarramurdi 11 urterekin hasi omen zen bateria jotzen eta 15 urterekin Les Mecaniciens taldean hasi zen, eta geroztik Baldin Bada, Sutagar, Anje Duhalde, Alaitz eta Maider eta Fior taldeetan aritu da baterria jotzen. Aitor Zabaleta, berriz, Etzakit taldean hasi zen duela 15 urte baxua jotzen, Esne Beltzan taldekide dituen Xabi Solano eta Jon Mari Beasainekin batera eta bertan 8 urte egin ondotik, 5 egin zituen Izotz berbena taldean. Duela hiru urte, bi ibilbide horiek Esne Beltza taldean bat egin zuten. Zugarramurdiaren dionez, “orain arte eroso sentitu naizen taldea, esperientzia gehien pilatu dutena eta gustora sentitzen naizen taldea”. Negu honetan hiru urte beteko ditu taldeak eta bi diska plazatu ditu. Orain arte ez direla gelditu aipatu digute, “urtean 55 bat kontzertu ematen ditugu eta alde horretatik pozik gaude”.

Zabaletaren ustez, “taldekide guztiek ibilbide luzea daukagu bizkar gainean eta beharbada horregatik jendeak ezagutzen gaitu, badaki gure lanaren berri eta deitu egiten gaitu”. Lehenbiziko diskak harrera ikaragarri ona izan bazuen, bigarrena ez zaio gibelera gelditu. “Kritika hagitzen onak izan ditu Euskal Herrian eta hemendik kanpo ere” dio Ibanek. Halere, taldeari tenperatura hartzeko neurria zuzenekoak ematen dutela uste du Aitorrek, “eta jende asko joaten da kontzertuetara eta gogoz, gainera, giro ederra izaten da”. Aurtengoa, taldearen konfirmazioa izan dela uste dute biek: “Hainbertze kontzertu eman ditugu, plaza librean, frontoian, aretoetan... Areto batera doanak espreski doa zuri aditzera, ordainduta eta hori barometro fidagarria da. Bilborocken ortziral arrats batean 400 pertsona sartzea gu aditzera izugarria da” dio Arantzako bateriak. Bere publikoan adin guzietako jendea badute ere, “gazte asko” hurbiltzen direla azpimarratu du Leitzako baxujoleak. Beraien azken diskoan Mundu osoko kolaborazioak dituzte: “Joan den uztailan Japoniako Fujirock





Leitzako Aitor Zabaleta eta Arantzako Iban Zugarramurdi, Esne Beltza taldeko partaideak.

festibalean hasi ginen grabatzen, biratxo bat egin genuen Japonian eta hotelean bi mikro jarri eta handik pasatzen ziren musikariei gurekin grabatzeko gonbitea egiten genien... Japonian hasi eta Beirutetik pasatu da, Mexicotik, Italiatik, Senegaletik, Kataluniatik, Madriletik, Kolonbiatik... teknologiak ematen dituen baliabideak dira". Hizkuntza eta estilo aldetik ere anitza da diskoa, "beti ere ahaztu gabe nongoan garen, trikitixa beti hor dago, euskara ere hor dago, baina bertze hizkuntzei bidea itxi gabe; frantsesa, ingelesa, gaztelera, italiarra... Euskara da zutabea, baina beste adarrak ere badaude". Hitzei dagokienez, gehien egilea Jon Garmendia Txuria da eta gaiei dagokienez, "Euskal Herrian ditugun arazoak, gizarte gaiak, maitasun istorioren bat... betikoak" direla aipatu digute. Normalean 9 musikari eta breakdance egiten duen dantzaria izaten dira eszenalekuan, baina soinu teknikaria, laguntzailea eta managera ere hor izaten dira: "Beti 13

lagun izaten gara kontzertuetan". Duela bi urte Elizondoko Lur dantzalekuan jo zuten Esne Beltzakoek. "Oso ongi egon zen -dio Zabaletak- baina hura gainditu eginen dugu oraingoan". Ibanek dioenez, "bestak dira, giro polita izanen da eta gu ongi pasatzera eta jendearekin konektatzera joanen gara". Diskatik zuzenekora beti aldea izaten da "baina gure kasuan, gu zuzeneko taldea gara, ongi pasatzera goaz eta hori nabaritzen da" diote aho batez. Aurten Londresera eta Berlinera ere joatekoak dira, baina kontzertu gehienak Euskal Herrian, "Bizkaian pila bat eta gure inguru honetan guttiago", eta bakarren batzuk Madril eta Katalunian eman dituztela aipatu digute. "Heldu den urtean kanpora begira jarri nahi dugu ahal den neurrian, Argentina, Mexico edo Kuba aldera ateri... Suitzara ateratzeko ere bada proiekturen bat, deus itxi gabe... Pixko bat oxigenatzeko eta aldatzeko ere ongi etorriko zaigu" aipatu digute Esne Beltzako taldekideek.



KARRIKA
ostalua
ongi pasa bestak
ELIZONDO • Jaime Urdia, 11
948581275

BENAR
ileapaindegia



Braulio Iriarte, 58
Elizondo
Tel. 948 452 467

MAÑONEA
AGENTZIA
aseguruak



Braulio Iriarte, 9
ELIZONDO
T. 948 581 132
GENERALI
GROUP

AXULAR
Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak,
aldizkariak, prentsa, tabakoak eta
besta liburuak ekartzen dira enkarguz



Ongi pasa bestak
eszena 1999 gaste
bizkai dantzak

Santiago • ELIZONDO • Tfnoa: 948 581 507

Urrekin egina
Tartak eta pastelak
Etxean egindako izozkia
Gozotegia

Balkorra

Besta onak pasa!

Santiago, 15 • Tel: 948 580 061 • ELIZONDO



ferretería
Quevedo

Babesa eta edertasuna guziaren gainetik


- Elektrizitatea
- Zerraildegia
- Erremintak
- Joareak
- Haziak...



Santiago 31 - ELIZONDO

Tfnoa: 948 580 234

Fax: 948 581 210



RUIZ DE LARRINAGA S.L.

Zurgintegia
Sukaldeak
Aluminioak
PVC

ongi pasa bestak!

Ordoki Ind. • ARIZKUN
rdelarrinaga@hotmail.com
637 59 39 96 - 948 45 33 87



Albaitaritza

www.albaitaritra.com

Tfno.: 948 580 980

Materials

Hotihs

Hazla

Osagarri mineralak

Bildota eta aratxeendako esnea

Xaboi eta desinfektatzaileak



Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak

Albaitack

www.albaitack.com

Telno.: 948 506 169



ALBAIKIDE
Tine



Tfno.: 902 169 169

www.albaikide.com

Albaitari zerbitzua



uztailak 25 IGANDEA Santiago eguna

- 07:30** Sokamuturra
09:30 Argi soinuak
11:00 Meza Nagusia



- 11:30** Herritarren Elkartzea Elizako atarian
12:00 Karrikadantzan Plazarat
12:30 Mutildantzak



- 13:00** Luntx Herrikoia
17:30 Goitiberak Bagordin
18:00 Erraldoien Ibilaldia
19:30 Herri Kirolak (Euskal Herriko Aizkora Txapelketaren 2. mailako kanporaketa)
19:30 Sokamuturra
20:30 Dantzaldia Garraxi taldearekin
21:00 Dantza herrikoiak Ziga plazan
22:00 Mutildantzak
23:00 Su Artifizialak
23:30 Txutxin Ibañez eta Acapulco Mariatxia
01:00 Dantzaldia Garraxi taldearekin



BAZTAN
Ferreteria
pintura · Aratzegiko gaurak
Kristalezko Iratzeria · Oporiak...
Tel: 948 580 423 Santiago, 79 · Industriadela - ELIZONDO

ELBETEKO POSADA
Kavakandi, 1 - 31700 Ibañeta (Navarra) • Tel.: 948 58 13 83 - 948 58 1918
www.posadadelbete.com - info@posadadelbete.com

ongi pasa bestak
BIDEGAIN
ARRAINDEGIA
ELIZONDO - T. 948 580 496
DONEZTEBE - T. 948 456 188

aldur ileapaindegia
Telefona
948 580 850
Mugikorra
620 893 597
Orduetegi
zabala

H. LOPEZ
Santiago, 93 • ELIZONDO
T. 948 452 126 M. 605 708 124
info@honestolopez.com
KOPURAK - ZERAMAKA - TEGERAK - BARRIOK - KIDUEK
Erretforma integralak - Xurgapen zentralizatuaren instalazioak
Aire Giratua - Berokuntza eta aire konprimatuaren instalazioak
INDUSTRIA ETA PARTIKULARRENTZAT ITURGINTZA

Galarregi
Supermerkatua
Zerbitzu atsegina
Aukera zabala edari eta likoreetan
Santiago, 12 - ELIZONDO - Tfnoa: 948 580 005

GOÑI
harategia

ongi pasa bestak!

Mendiñueta, 3 • ELIZONDO • T. 948 580 164

BC BALLARENA CONSTRUCCIONES, S.L.

ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
ITURGINTZA, ELEKTRIZITATEA, KALEFAKZIOA, AIRE-EGOKITUA



Santiago, 60 beheak • ELIZONDO • ballarena@telefonos.es
Tel./Faxa: 948 452 395 • Mug. 647 688 988 • 647 688 982

Sansiñena
garagea

zerbitzu ofiziala

- Tailer mekanikoa
- Kotxeen salmenta eta konponketa
- Engraseak

• Agria, New Holland traktoreak

• Erabilitako nekazaritza tresneria

zerbitzu ofiziala

AGRIA

NEW HOLLAND
AGRICULTURE

Santiago, 37 • Tfnoa-Faxa: 948 580 406
ELIZONDO



Xabi Torres

Elizondoko alkatea



“Bestetako lanetan ehun pertsona aritzea nahi dugu eta gazte jendea sartu, erreleboa bilatzen dugulako”

Xabier Lopez Zabaleta, 6 urteko mutikoak botako du aurten Elizondoko Santio bestetako txupinazoa. Izan ere, San Francisco Javier eskola publikoko eta Baztan Ikastolako ikasleen artean egindako marrazkien artean berea aukeratu da programa hornitzeko. Horretaz gain, aurten lehen aldiz, Santioak iragartzeko kartel lehiaketa ere egin da. Iruñeko Silvia suertatu da garaile, ondoko orriari ageri den irudiarekin. 300 euro eta zikiroako bi txartel eskuratu ditu saritzat. Kartel horren osagarriekin egindako irudia ere agertuko da programaren azalean. Xabi Torres Elizondoko alkatearen erranetan, “hamar lan aurkeztu dira, erdiak Baztangoak eta bertze erdia kanpoko jendeak aurkeztuak. Inoiz ez zen kartelik izan Elizondoko bestatan, baina partehartzea bultzatzeko modu egokia iruditu zitzaigun”. Izan ere, herritarren partehartzeari garrantzi berezia ematen diote Elizondoko alkateak eta kargodunek. “Iaz, besta komisioaz aparte bertze 46-50 lagun aritu ziren

lanean eta aurten kopuru hori bikoiztu egin nahi dugu eta ehun pertsonetara ailegatu, errelebo bat bilatzen dugulako. Gan den urtean 1990. hamarkadako gazte gutti ikusi genuen lanean eta aurten horiek ere bildu nahi ditugu, bestetako lana nola egiten den transmititzeko. Kolektibo, elkarre eta talde ezberdinen partehartzea bilatzen saiatu gara”. Joan den urteko egitarauarekin konparatuz, aldaketarik nabarmenena “egun bat gehiago daukagula da” dio Torresek. “Bezpera larunbata da, baina ortziraletik mugimendua izaten dela kontuan hartuz, zenbait gauza antolatuta ditugu. Atletismo taldeak haur eta helduendako krosa prestatu du eta kontzertu potentia ekartzen saiatu gara eta lortu dugu: eskualdeko musikariek osatutako Sutan taldea, Euskal Herrian bere fama duen Governors taldea eta zer erranik ez, Esne Beltza”. Lehenago egiten zen sokamuturra ere berreskuratuko dute aurten Elizondon eta zaharberrietako pilotalekuaren inaugurazioa

razioa eginen da, pilotari profesionalen partida handi batekin. Bagordin goitibera txapelketa ere eginen da "arras ikusgarria izanen da, -aipatu digu Xabi Torres-ek- 3 kilometroko malda handia da eta Euskal Herriko Federazioaren laguntza izanen dugu" eta kirol arloarekin segituz, Euskal Herriko bigarren mailako aizolari txapelketako kanporaketa ere. Horretaz gain, egunero-egunero jarduera kopuru handia prestatu dela aipatu digu Torresek, "eta gero bakoitzak aukeratuko du zeinetan parte hartu". Aurrekontuari dagokionez, gan den urtekoaren paretsukoa erabili dute: "65.000 euro ingurukoa izanen da, gan den urtekoa baino handixeagoa, baina sarrerak ere gehiago izanen direnez, berdintsu geldituko gara. Kontuan hartu 2008kotik 25.000 euro jautsi ginuela iaz". Mutildantzen inguruan sortutako gorabeheraz ere

aipamena egin du Elizondoko alkateak. "Aferaren soluzioa zaila da, baina bilatzen ari gara. Guk ezin dugu neskek dantzatzea galerazi, eta ezin dugu txistulariei jotzera behartu. Jarrerak enrokatuak daude eta ez dut uste aurten soluzionatuko denik, nahiago nuke!" dio Torresek. Alkatea eta kargodunek mezara joan ez zirela eta oihartzuna izan zuen zenbait mediotan, baina hori gauditutako eztabaida dela aipatu digu: "Gauzak erranak daude, norbaitek gurea makarrada bat izan balitz bezala aurkeztu nahi izan zuen, baina hori ez da horrela. Aurten ere segituko dugu, elizatariko elkarretaratze horrekin, aski gauza polita baita denak elkartzea: politikoak, eliztiarrak, musulmanak, homosexualak... denak batera plazara gateko. Gaur egun dugun gizartearekin koherentea dela uste dugu, eta horretan segituko dugu".



TEL. 948 58 00 25

Kris
ileapaindegia

Elizondoko Kalea, 34 - ELIZONDO

Angel TRANTXE
elektrizista

Instalazio
elektrikoak

Konponketak

Tfnoa.: 948 452 246
Mug.: 679 454 113 · ELIZONDO

Belardenda eta Dietetika

Natura Sarea

- Sendabelarrak
- Produktu naturalak
- Kosmetika naturala
- Naturopatia kontsulta
- Pisu-terapia
- Zapata naturalak
- Liburuak

Santiveri RECONATUR SORJA NATURAL Vegetalia Finestra Cielo

Santiago, 47
948 580 203
ELIZONDO

Besta onak pasa!!

VIRGILIO **MERKEJAKOAK** Santiago, 32 ELIZONDO 948 580 209

Larunbait arnatsaldetan irekia
FAMILIA UGARIENAKO %10eko deskontua



elicetxe
suministros electricos

material elektrikoak
ongi pasa bestak!

Tel: 948 581 261 - Faxa: 948 452 397
Santiago, 83 (Industrialdea) - ELIZONDO

ESTIBALIZ estetika zentrua
T. 948 581 360 • 606 736 466

%10eko deskontua
kupoi hau aurkeztuta

3 zerbitzu hauetan:

- Erlaxazio masajea: kabiak-krema eta pasio-frutazko olio beroa
- Urrea eta kabiareztuko aupegi-tzalamendurako bonoa (4 sesio)
- Alga bildukina eta masajea

uztailaren 8tik abuztuaren 15era



LABORRA LARUMBE
arkitektoak

ongi pasa bestak!

Tel: 948 580 122
Faxa: 948 581 888
Santiago, 54-1-ELIZONDO

www.laborra.com

ZER GALAN
aholkularitza

ONGI PASA BESTAK!

ZERBITZU FISKALAK

- Aholkularitza fiskala
- Zerga agiriak
- Errenta alortzenak
- BEZ alortzenak
- Sozietate zergak
- Zure negozioaren zergen kontrola

KONTABILITATE ZERBITZUAK

- Kontabilitatearen aholkularitza
- Enpresen erakitzia
- Kontabilitatearen erarria
- Administrazio zerbitzuak
- Merkataritza - erregistratzen sarteko kontuen aurkezpena

BERTZE ZERBITZUAK

- Auzilazioen eramatea
- Ezgaitasunen eramatea
- Lan eta erresidentzi baimenen eramatea
- Aita eta amatasun batak
- Langabezi kapitalizazioak
- Diru - laguntzak
- Negozioen bideragarritasunen eramatea

Baztanberri plaza, 6 | 31700 Elizondo
T. 948 581 300 F. 948 580 648
info@zergalan-baztan.com
www.zergalan-baztan.com

Santiago, 43 - ELIZONDO
Tel. 948 581 442

EGUZKI-ALDE

ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
Ostiralek 20:00-22:30
Larunbatak 13:00-15:00 / 20:00-22:30
Igandeak 13:00-15:00 / 20:00-22:30
Eskara minimoa: 12,00 €
(%10eko gehigarria etxera eramateagatik)

ONGI PASA BESTAK!

GOIZALDE
ostatua

Jaime Urrutia, 8 - ELIZONDO - Tel. 948 581 334

XORROXIN IRRATIA

uztailaren 24ean
ELIZONDOan

BEHIKAKA.COM
(2)

ZOZKETA MUNDIALA !!





uztailak 26 ASTELEHENA

Gazte eguna

09:30 Argi soinuak Beartzunen



- 10:30 **Gosari herrikoia** Berron
Ondotik Itzulia auzoan barna fanfarre Mi-Farekin
 11:00 Erraldoi eta buruhaundien konpartsa
 11:00/14:00 **Puzgarriak** Igerilekuan
 12:00 Elizondoko VI. Trinkete Txapelketa (Afizionatuen partidua)
 14:30 **Kuadrilen** Bazkaria gorapetan
 16:30 **Zirko** emanaldia eta tailerra
 18:30 **Erreka jautsiera.** Ondotik kukaña
 19:00 **Baztan-zopak** Txokoton
 20:30 Kantaldia **Amarenalabak** zuberotarrekin
 21:00 Dantzal Herrikoia Ziga plazan
 22:00 Mutildantzak
 01:00 Dantzaldia **Trikidantz** taldearekin



Perfumeria
Centro de Estancia

Beatriz

Perfumeak • Komestika
Oparitzeko artikulua

Santiago, 53 • ELIZONDO • Tfnoa/Faxa: 948 580 283

Foto

Depilación

TRATAMIENTOS

AURPEGIKOAK:
DERMATITISA, AKNE, ARROSA KOLEA...

GORPUTZEKOAK:
GEHIEGIZKO PISUA • LIKIDO-ERRETENTZIOA
ZIRKULAZIOA • LARRU AZALA
ALERJEN JASANEZINTASUN TESTA

ZERBITZUAK

- DEPILAZIOA:
ARGIZARIZ
ELEKTRIKOA
LASER BIDEZ
- MANIKURA
- MAKILLAJEA
- SOLARUM-a

Beatriz

LA BAZTANESA S.A
ELIZONDO
Tfnoa/Faxa: 948 580 129
IRUÑA
Tfnoa: 948 222 223
autobuses@labaztanesa.com



TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA



- Zurich Aseguruenak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bihurtza aseguruak
- Lan ardurak
- Nominu eta Aseguru Sozialak
- Aseguruenak
- Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliarioa
- Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gendakia
- Italgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein giurako gestioak

Santiago, 15 • ELIZONDO • Tel eta Faxa: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

cocinaslaster




Diseinuzko sukalde mobleetan
preziorik leihakorrenak
Etxetresna marka guztietan
sekulako eskaintzak

T 948 45 26 10 Jaime Urrutia, 3 • ELIZONDO
www.cocinaslaster.com



uztailak 27 ASTEARTEA

Haur, aitatxi ta amatxien bazkaria

- 06:00** Zinger-jatia
09:30 Argi soinuak
11:00 Erraldoi eta Buruhaundien ibilaldia



- 11:00** Gosarie Bagordin
Ondotik **Plater tiroketa** Txapelketa
12:30 **Bandaren** Kontzertua Mariano Izeta
plazan, bertzela Arizkunenean
13:00 Aitatxi ta Amatxien bazkarie
17:00 Elizondoko **I.Mus** Txapelketa
Falfarak Elkartean
17:30 Haurren jokuak
18:00 Sokamuturra



- 19:00** Kukubiltxoren antzerkia
Ondotik Bonba japonesak eta txokolatada
19:30 Bertso Poteoa: Soto, Zubeldia eta Elizetxe
20:30 Dantzaldia **Laiotz** taldearekin
21:00 Ziga plazan dantza herrikoiak
22:00 Mutildantzak
00:30 Dantzaldia **Laiotz** taldearekin

uztailak 28 ASTEAZKENA

Herriaren eguna

- 09:30** Argi soinuak
11:00 Erraldoi eta Buruhaundien ibilaldia
12:00 Puzgarriak eta Kars



- 14:30** Zikiro jatea
16:00 Puzgarriak eta Kars
18:30 Zetzeria eta animalia basatien erakustaldia
19:30 Sokamuturra
20:30 Kantaldia **Ansa ahizpak** aranoarrekin
21:00 Dantza herrikoiak Ziga plazan
22:00 Mutildantzak
22:00 **Gizajua ni** eta kalejira txarangarekin
 herrian barna



OHARRAK:

Kukaña jartzeko ordua baino lehen, enborra bizkarrean hartuta ostatuetatik bar-
na poteoa egingen da aitzineko asteen. Kanika txapelketa bat ere antolatu ohi da
egunen batean, zehaztuko da. Kanpaleku bat ere prestatu da ortziral, larunbat
eta iganderako.

Aldaketak izan daitezke egitarauan.

onegin
 Herbodietética Ekodenda

ZERBITZUAK:
DIETISTA: Gantzen neurketa, Diabeles,
 Kolesterolarentzako dietak, Argaltzeko dietak.
NATURISTA: Naturopatia, Homeopatia

PRODUKTU EKOLOGIKO eta NATURALAK
PRODUKTU ARTISAUAK

Jaime Urrutia, 26, beheo • ELIZONDO • 948 581 932

CC IABAR OBRAS Y CONSTRUCCIONES

Eraikuntza eta igeltseritza
 aurrekontuak

 Industri-partzelak Ordokan

 Familia bakarrekoko etxeak
 Oronozen, azkenekoak

PROMOCIONES INMOBILIARIAS ZIOZ

SANTIAGO, 55 ELIZONDO 948 58 04 52
 www.promocioneszioz.com

arkilamald

ERAIKUNTZA-PROIEKTUAK
 URBANIZAZIO-PROIEKTUAK
 ZAHARBERRITZEAK
 LUR NEURKETAK eta KUBIKAZIOAK
 REPLANTEOAK
 OBREN ZUZENDARITZA
 NABEAK
 KONTSULTAK

Santiago, 54 BIS Behea
 www.arkilamald.com

ELIZONDO T. 948 581 931
 arkilamald@arkilamald.com

SALDIASKO
okindegiak
egurrezko labea



Olasoa etxea
T. 948615046
SALDIAS

ANTXITONEA
Txakana



24 legele bainumak - Agurkaleku
Aste gimnasioa - Bar-restauranta eta TI
Gela berria makalari eta hotel zerbitzuenkin
ongi pasa bestak



Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

Pasaburu. 9 baxo Elizondo
T. 948 588 200
www.igogailua.com
info@igogailua.com



igogailua
ileokondegiak

ileapandegia
burua garbitzeko aukerak
shampoo masai sistemarekin

ongi pasa bestak



BISITA TXARTELAK
Kartulina berezia 300gr. - koloretan bi aldeetatik - Distira akabera

	100	200	500	1000
Egutegiak (8,5 x 5,5cm)	70€	85€	110€	150€



KULTURKARI | Anduetzeta, 12 | 31760 ETXALAR | T. 948 635 458 | kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com

Bail gainera aukera zabala dute.

Ikusi aha duzu ze nolako eskatzen dituzten?




suteia
instalazioak

ONGI PASA BESTAK!



igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com

ARRANTZA → IZOKIN DENBORALDIA BUKATU DA

Zazpi izokin arrantzatu dituzte herritarrek denboraldi honetan

Ekainaren 18an
arrantzatu zuen
Jose Mari
Gainzak azkena

Hauk dira aurtien Bidasoan izokinak arrantzatu dituzten herritarrak: Juan Otamendi, Jose Mari Mitxelena, Ernesto Gainzak bi, Sebastian Gainza eta Jose Mari Gainzak bertze bi.

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 18an arrantzatu zuen Jose Mari Gainza herritarrak denboraldi honetako 20. izokina Bidasoan eta horrela eman zitzaion sasoiari akabera. Araudiak denboraldiak uztailaren 18ra arte edo 20. izokina arrantzatu arte iraun dezakeela dio eta azken hau gertatu denez, geroztik ezin da Bidasoan izokinik arrantzatu.

Erraldoien konpartsak

Abian da Sanesteban bestetan ateratzen den erraldoien konpartsa indartzeko, eta talde iraunkorra sustatzeko asmoz, erraldoiak nola dantzatu erakutsi-ko duen ikastaroa. Uztailaren 3ko lehen saioaren ondotik, hilaren 17an, 24an eta 31n egingo dira hurrengoak.



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Erregulartasunaren Saria

Mikel Agarak irabazi du Kirolak Zela dendak Gure Txokoako jubenil mailakoei ematen die Erregulartasunaren Saria. Sailkapenean 33 puntu eskuratu ditu.

BERRANDONEA, I.L.
FRUTAS DE VARIACION
FRUTAS DE VARIACION
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA



UTZITAKO ARGAZKIAK

Eguraldi euritsua, baina giro ederra

Ortziraleko poteo-tapeoa, altxaferoa, kalejira eta hippy gauaren ondotik, larunbatean, kalejira, zikiro-jatea, eta Gure Txokoa Dantza taldearen saioa izan ziren, baita suzko zezena ere. Igandean ere hainbat ekitaldi izan ziren: plater tiroketa, herri kirolak, bonba japoniarak, haur jokoak, dance-jazz erakustaldia... Altzateko komertzioetako erakusleiho lehiaketako sariak eman ziren eta saskiaren zozketa ere egin zen. Auzo afariarekin akautu zituzten bestak.



ARGAZKIA: GENARO TALDEA

Genaro taldeak ere ospatu du Realaren igoera

Bertatik bertara ospatu zuen Realaren igoera Genaro Taldeak. 2007an jaitsi zen Bigarren A Mailara, 40 urtean goiko kategorian egon ondotik, eta ekainaren 13ko partida erabakiorrean, hantxe izan ziren Genaro Taldekoak. Anoeta eta inguruak leher-tu zirenean zuzeneko lekuko. Eta bestondoa pasatzeko astirik eduki gabe, bihar-munean, ETB2ko Uyyyyy saioan izan ziren publiko bezala parte hartzeko. Esku ar-tean dituzten egitasmoen artean, abuztu bukaeran jokatu-ko den Jon Irazoki futbol memoriala dago eta aurtien Unai Zelaietaren heriotzaren 10. urteurrena dela eta, zerbait berezia egin nahi dute. Torneo triangularrean Realeko jubenil taldea ariko dela ere aitzineratu digute. Aipatu, azkenik, Munduko Futbol Txapelketaren harira antolatutako porra arrakastatsua izan dela: guztira 72 porra-kiniela egin baitira.

LESAKA

KULTURA → IKASTAROAK

Multiarte programa landu nahi du Santiago Jorge margolariak

Margoketa klaseaz gain «artearekin lotutako programa osoa, dinamikoa eta didaktikoa» dela dio

Aitor AROTZENA

Artearekin lotutako ezagutza ahalik eta sakonena lortzeko eta ikasleek sormena bere osotasunean garatzeko Multiarte adierazpen artistikoaren programa landu nahi du Santiago Jorge margolari eta ilustradoreak Lesakan. Kanarietako La Palmas sortu eta Tenerifen, Madrilén eta Galizian pinturarekin, grabatuarekin, diseinuarekin eta bertze adierazpen artistikoekin zerikusia duten ikasketak egin ondotik, Lesakan bizi den artistaren asmoa abuztuan ikastaro intentsiboak eskaintzea da, bizpahiru astez astean hiru egunez, eta irailetik aitzinera, astean behin ordu eta erdiz. Ordutegia, ikasleen beharren arabera ere egokituko

du. Bi talde egingen lirarteke, 6 urtetik 14 urtera arteko ikasleekin bat eta hortik goitiko edozein adineko ikasleekin bertzea. «Artearekin lotutako programa osoa, dinamikoa eta didaktikoa da, margoketan oinarritua», dio Santiago Jorgek. Interesatuak 652 064839 telefonora deitu eta Beti Gazte elkartearen egoitzatik pasatu behar dira ortzegunetan, 20:00etatik 21:00etara eta zuzendaritza batzordekoekin solastu.

Zialdoko Madalenak hilaren 17 eta 18an

Uztailaren 17an, 12:00etan botako den txupinazoarekin abiatuko dira Zialdo auzoko Madalena bestak. Aitzinetik, 11:30ean txistulariek diana joko dute. 14:00etan bertso-bazkaria izanen da eta ondotik kalejira txarangarekin. 22:30ean Arantxa eta Pantxoren eskutik mexikanak izanen dira kontzertuan.

Uztailaren 18an, 12:30ean dantzak izanen dira. 17:00etan haur jokoak eta 19:00etan kantatu zaharrak.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Lehen hitza euskaraz, San Juan bezperako jaialdian

Joan den urtean bezala, aurten ere San Juan bezperan ospakizun berezia plantatu zuen Euskara Batzordeak. Iazkoan, *Badakizue, egizue* izan zen eguneko hautatutako leloa, eta aurten *Lehen hitza euskaraz*. Helburu horrekin, lehenik Euskara Batzordeko kideak akordeolari taldearen laguntzarekin Plaza Berria eta Antoiu karriketan barna ibili ziren, etxeen izenak paratzen. «Gure etxeak euskaraz, euskara gure etxea» esaldiaren azpian, gutti erabiltzen diren eta batzuetan ezagutzen ez diren etxeen izenak ageri ziren. Gero, komentuko beglagian bildu zen jendea, bertso eskolako gaztetxoek, abesbatzak eta Etnia taldeak eskainitako jaialdian parte hartzera. Dagoeneko lehen suak piztuak zeuden, eta neska-mutikoak batean eta bertzean saltari zebiltzan, baina oraindik arratseko bertze sorpresa bat ere bazen, ezpatadantzarien taldeak San Fermin eguneko entsaioa hantxe bertan egin baitzuten, suaren inguruan.

LEHIAKETAK → URRIAREN 30A BAINO LEHEN AURKEZTU BEHAR DIRA LANAK

Argazki lehiaketa berreskuratu du Beti Gazte elkarteak 70. urteurrenean

A.A.

Beti Gazte elkartearen 70. urteurreneko ospakizunen barrenean, duela urte batzuk arte egingen zuen argazki lehiaketa berreskuratu dute. Zehazki 2000. urtean egin zen bederatzigarren argazki lehiaketa izan zen azkena. Hamar urte beranduago eta elkarteak 70 urte bete dituela aitzakia hartuta, berreskuratu dute. Nahi duten afizionatu guzietatik har dezakete parte eta lanak urriaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira Beti

Gazte elkartearen (Beheko Plaza 9, 31770 Lesaka), gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz.

Argazkien gaia kirolarekin, mendiarekin eta naturarekin zerikusia duen edozer izanen da eta paperean egindako argazkiak aurkeztu beharko dira, zuri-beltzean edo kolorean eta digitalki manipulatu gabeak. Egile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkezten ahal ditu eta berak erabakiko du argazkiaren neurria, nahiz eta horietako ba-

koitzak gehienez 30x40 zentimetroko kartulinean jarrita egon beharko duen. Hiru sari emanen ditu Beti Gazteak. Lehenbizikoa, 300 euro eta trofeo, bigarrena 200 euro eta trofeo eta hirugarrena 100 euro. Gainera, sari berezia izanen da Beti Gazteren 70. urteurrenarekin zerikusia duen argazkirik hoberenari. Epaimahaiak azaroaren 9an emanen du erabakia eta azaroaren 9tik 30era, erakusketa izanen da Beti Gazte elkartearen egoitzan.

Lesaka
- Bazarra
- Murtzia
- Jantzizkoak
- Pelen blusak
kaltogoria
Beheko plaza 10 31770 Lesaka
T. 946 627 514

ALVARO LOPEZ
Eskolola, pladur lanak,
sabal modularra, tabikeak
OBRA ZIURTAGIRIAK
LESAKA • 651 704 593

GOZZ-ALDE
JAVARDEWIA
Ordea 41 • 2. 500 000 • LESAKA

IRU BIDE
Enfitega - Asador
Berritza, 3. Lesaka
Tel: 946 637 127

ETXALAR

TURISMOA → JOAN DEN URTEAN BEZALA

Uztailean eta abuztuan Turismo Bulegoa zabalik Kultur Etxean

Abuztuan pertsona bat behar da bertan egoteko

Irune eta Itsaso

Joan den udan eta pasa den Aste Santuan bezala, uda honetan ere, informazio gunea ireki-ko da Kultur Etxean. Uztailean eta abuztuan egonen da zabalik; uztailean goizez eta abuztuan goizez eta arratsaldez.

Jabier Iriarte izanen da uztaileko eta abuztu-ko lehenengo hamabortzaldian goizez informa- zio guneaz arduratuko dena. Baina abuztu oso- an arratsaldez eta hila- beteko bigarren hama- bortzaldian goizez in- formazio bulegoa zabal- du ahal izateko bertze pertsona bat behar da. Hortaz, interesatua da- goenak Bertizko Par-

ABUZTURAKO DEIALDIA

Abuztuko 2. hama- bortzaldian goizez eta hilabete osoan arra- tsaldez Turismo Bule- goan lanean ari nahi duenak Bertizko Par- tzuergora dei dezake.

tzuergo Turistikora dei- tu behar du.

Igerilekuen irekiera

Ekainaren 26an ireki ziren igerilekuak. Lorea Arangoa sorosleak erran duenez, lehenen- go egunetan ez zen jen- de aunitz hurbildu egu- raldia medio. Bera iza- nen da igerilekuko so- roslea eta Andres Dan- gas ostatuaz arduratu- ko dena. Urtero beza- la, igerilekuko bonoak aurrezki kutxetan hartu behar dira eta aste, hi- labete edo sasoi oso- koak izan daitezke. On- doko taulan zehaztuak daude prezioak.



ARGAZKIA: ITSASO ELIZAGOIEN

San Juan Sua

Ekainaren 23ko ilunabarrean, bigarren urtez segidan, San Juan Sua plazan egin zen. Sua piztu aitzinetik, hainbat lagun frontoian bildu ziren, eramandakoare- kin berendu-afaria egiteko. Ondotik, ohitura den bezala, hurbildu zirenak he- rriari itzulua eman zioten joareak joz. Iluntzean sua piztu zuten eta nahi zuen gu- ztiak suaren gainetik salto egiteko aukera izan zuen.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

2010EKO DENBORALDIKO PREZIOAK IGERILEKUAN

	ASTEA	HILABETEA	SASOIA	EGUNA
7-10 urte	4,48 euro	7,82 euro	12,14 euro	2,03 euro
11-16 urte	8,18 euro	14,43 euro	20,21 euro	3,28 euro
16 urtetik goiti	15,94 euro	28,13 euro	39,18 euro	4,90 euro
Familiarrak			85 euro	
(gurasoak eta 16 urtetik beheitiko haurrak)				

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
Audi

MARKA GUZIEH KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Biltzila, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

IGANTZI

UDALA → HIRIGINTZA PLANA

Lur urbanizagarri eta ez urbanizagarrietan bereizi nahi du Udalak herria

Proposamena jendaurrean egonen da abuztuaren 31 arte

TTIPI-TTAPA

Hirigintza Planean aldaketa nabarmena ekarriko duen proposamena egin du Udalak: lurrak urbanizagarri eta ez

urbanizagarrietan bereizi nahi ditu.

Orain arte, herrigunea eta herrigunetik kanpoko lurretan sailkatuak zeuden, baina herrigunetik kanpo 1.500 metro koadroko eremua edukiz gero, etxebizitza egiteko aukera bazegoen. Azken aldian, ordea, jende andanari ukatu zaio etxebizitza egiteko baimena herrian, eta ho-

rreren harira, hartu du Udalak Hirigintza Planean aldaketa egiteko bidea.

Momentuz behin behineko proposamena baino ez da, eta prozedurarekin aitzinera egin baino lehen jendaurrean egonen da abuztuaren 31ra arte, herritarrek ikusi eta ekarpenak egin ditzaten. Ez bada deus aurkeztzen, orduan hasiko da tramitazioarekin.

Harrobia haunditzeko baimena emana

Harrobia haunditzeko eskaerari baiezkota eman dio Nafarroako Gobernuak. Igantziko

Harrobiak enpresa 2007an hasi zen baimena lortzeko tramitazioarekin, eta urte hartako urrian Udalak harrobia haunditzeari buruzko aldeko txostena egin zuen. Proiektua jendaurrean egon zen boladan ez baitzen alegaziorik aurkeztu. Horren ondotik, bertze baimen batzuk ere eskuratu behar izan ditu harrobiak, eta azkenean, joan den

ekainaren 25ean eman zion behin betiko baie-tza Gobernuak.

Ustiapenak 30 urte iraunen ditu eta guztira 10,491.091 metro kubiko aterako dira. Urteko ekoizpena, berriz, 800.000 tonakoa izanen da eta zazpi fase-tan egingen da.

Zanbudioren Bordako hondakindegia ia osorik bete dela-eta, hondakinak harrobitik 500 bat metrora dagoen Arantzako Mugarai eremura eramanen dira.

Harrobikoek, euren aldetik, harrobirako sarbideen bazterretan dauden zuhaitzak zaindu beharko dituzte, bereziki lehenengo 100 metrotan daudenak, eta hautsaren kontrako babes neurriak ere hartu beharko dituzte. Uretara egindako isurketak eta zaratak ere aintzat hartu beharko dituzte, bertze neurrien artean. Jarraipen txostenak ere bortsu urtean behin aurkeztu beharko dira In-gurumen Kalitatearen Zerbitzuan.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRAK UTZITAKOA

Urteko hirugarren hitzordua igande honetan San Juan Xarren

Ohi bezala, giro eta eguraldi ederrarekin, San Juan Egunean egin zen urteko lehenbiziko besta San Juan Xarren, eta ingurutik eta ez hain hurbileko herrietatik ere bildu zen jendea. Uztaileko igande guztietan Meza izanen denez, hurrengo igande honetan, hilak 10, izanen da. Beti bezala, 12:00etan izanen da Meza.



ARGAZKIA: MILA IRAOLA

Jokoan zeuden bi txapeletatik bat herrira

Errenteriako XI. Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren ekainaren 20an, eta tartean izan ziren bi herritar. Benjaminetan, Enaitz Telletxea igantziarrak Berako Mikel Elzaurdia izan zuen lagun, baina partida ona eginagatik, 14-18 galdu zuten Goizuetako Aizkorbe eta Apezetxearen kontra. Infantiletan, ordea, txapela Bortziri-etara ekarri zuten. Unai Telletxea herritarra eta Lesakako Jon Olaizolak 18-9 irabazi zieten Alde Zaharreko Chikapuso eta Olarrari. Argazkian Telletxea-Olaizola eta Elzaurdia-Telletxea benjamin azpitxapeladunak. Lizarrako finaleran, bertzalde, Enaitz Telletxeak eta Jokin Mitxeok 18-8 irabazi zieten Aizkorberi eta Apezetxeari.

Martiko
Pol Zain, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Hastidien adinak eta arinak

Martikorekin zu zeu sukaldari.

DENDA
ORDUTEGIA
ASTELEHINETIK
ORTZIALERA

8.30etik
12.30era

14.30etik
17.00etara

JAKONE-GOZOTEKIA

Abate 10 BERA 948630786

BAR Botxo OSTATUA

Zain • BERA • 948 630 052

CALVO PLADUR

Dekorazio eskalolarekin
Gainalde desmuntagarriak
PLADUR sistema

PLADUR

696 128 958

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → AUZOKO BESTAK

Beheko Pisuetako besta eguna antolatu dute uztailaren 17rako

Herritar guztientzako egitaraua prestatu dute bizilagunek

Nerea ALTZURI

Herriko bestak Ama-birjinetan izaten badira ere, udako bertze ospakizun bat egingen da aurtien estreinak aldiz. Beheko Pisuetako bestak uztailaren 17an izanen dira eta bizilagunek aipatu bezala, *Vallecasko* bestak herritar guzietzuzenduak daude. Egitaraua osatzerakoan ere ez dira ez gibelera gelditu. Besta guinea eremu tiki batean kokatuko bada ere, gaur bizi diren 50 lagun inguruk herrian barna auzoaren bizitasuna zabaltzeko asmoa dute.

11:00etan plazan bilduko dira eta ostaluetan barna triki poteoa egingen dute. Bazkal aitzinean, 13:00 aldera altxafearoa botako dute eta herriko dantzarien emanaldia izanen da ondotik. Pisuetako atarian luze-

luze mahaiak paratuak izanen dituzte eta ajoarrieroa, saiheskiak eta tarta menua duen otordua giro ederrean egingen dute. Bizkaiko albo-kariak, bertsolariak, soinu-lariak... Mahai-ingurua alaitzen izanen dira. Bazkarian edonork parte har dezake, Pisuetako bizilagunen bati aipatu bertzerik ez da egin behar.

17:30ean haur eta helduentzako jokoak izanen dira. Musean ari nahi duenarentzako ere, txapelketa antolatu dute. Ilunabarrean eta arratsean, 02:00 arte Mikel Salaberri musikariarekin dantzaldia izanen da. Tartean, indarrak hartzeko zingar jatea egingen da.

16 bizitza daude Beheko Pisuetan. Denboraldi batez, guttiago bizi ziren arren, azken urteotan ia guztietan norbait bizi da. Bakarren batzuk eraikiz geroztik ere bai. Aski auzo bizia da betidanik, eta orain ikusi bertzerik ez dago... Pi-

suetako bizilagunen taldeak behin eta berriz besta hau herritar guztientzat dela azpimarratu digute. Beraz, guztiak gonbidatuak! Pisuetako akaitzindariak ditugu auzoko bestak prestatzen. Euren hasi dira, eta beharbada bertze auzotarako adibide bat ere izan daiteke. Iaz, herriko bestetan auzotarren otorduak gailendu ziren. Honek auzoko ospakizunak ugartzea ekar lezake. Ikusiko dugu...



Pertsonaia

Unai IPARRAGIRRE

Denboraldiko golegilerik onena

Pilotan ez ezik, futbolean ere ederki moldatzen da Erreneko Unai Iparragirre. Berako Gure Txokoa taldean egin du denboraldia, jubenilen lehen mailako taldean, eta 20 gol sartu ditu guztira. Gainera, bera izan da taldean gol gehien sartu dituenen, eta hortaz, berak jaso du urtero Beran Rural Kutxak ematen duen saria.

Udalekuak abian

Udako oporraldian udalekuek ere tokia izaten dute eta uztail honetan 24 hurrek ederki pasako dute. Sekula baino neska-mutiko gehiago apuntatu dira eta hiru begirale izanen dituzte: Aitziber Lizardi aranztarra, Maier Hoyos oiarztuarra eta Olaia Matxikote igantziarra.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRAK UTZITAKOA

Kuadrilla ederra Erriberri aldean

Gustura ibili zen argazkian ageri den kuadrilla ekainaren 17an eliza garbitzeagatik Erriberri aldera egindako ateraldian.

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940
Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

BIDASOA
TELDOAK • PERTSANA
ESTORZAK • AUTOMATIZAK
MOXETAK • KONPONKETA
T./F. 943 61 50 60
Auzolano Lopez de Etxebarri
IRUN • BERA

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ATERPE
ALBERGIA • JATETXEA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 • BERA

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Jesse Lora & Ena
Tfno/Fax: 948 630 018
Kanttonberri 12 • BERA

BORTZIRIAK

EUSKARA → OSPAKIZUNAK

Euskara Mankomunitatearen Eguna izanen da urriaren 31n

20 urte bete ditu aurten Euskara Mankomunitateak

TTIPI-TTAPA

20 urte bete ditu aurten Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, eta urteurren hori modu berezian ospatzeko, hainbat ekitaldi izanen direla iragarri dute borts herrietako Euskara Batzordeetatik. Horien artean, aipatzekoa da, urriaren 31n Beran eginen den Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Eguna.

Aitzineko hilabeteetan, Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako Euskara Ba-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ekainean borts herrietako Euskara Batzordeek bilkura egin zuten Etxalarko Kultur Etxean.

tzordeek Etxalarko Kultur Etxean egindako bilkuran iragarri zuten urriko besta. Baina orokorrean, Mankomunitatearen egoera izan

zuten aztergai. Gisa berean, aitzinera begira, euskararen normalkuntzarako tresna eraginkorra izaten segi dezan ziurtatu beharreko gu-

tieneko baldintzei buruz ere aritu ziren. Euskara Batzordeen egokierari buruz ere gogoeta egin zuten aipatu bileran.

GARRAIOA

Bestabusa larunbatean Lesakako sanferminetara joateko

TTIPI-TTAPA

Lesakako sanferminetara joan-etorrian ibiltzeko Bestabusa zerbitzua izanen da aurten ere. Larunbat honetan, uztailak 10, lehenbiziko autobusa 21:45ean abiatuko da **Arantzako** aparkalekutik; autobus hori bera 22:00etan pasako da **Igantzi**ko Bideetik eta 22:15ean **Etxalar**ko Landaburitik, handik Lesakara joateko. Bigarren autobusa, berriz, 23:30ean aterako da **Arantzatik**, 23:45ean pasako da **Igantzi**tik eta 00:00etan **Etxalar**tik. **Beratik** Lesakara joateko autobusak, berriz, 22:00etan, 23:00etan eta 00:00etan abiatuko dira. Toki-Onako aparkalekutik atera eta Agerratik ere pasako dira.

ITZULERAKO AUTOBUSAK

Itzultzeko, berriz, **Etxalar**, **Igantzi** eta **Arantzara** doazenak 03:30ean eta 06:30ean aterako dira Lesakako suhiltzaileen parketik. Etxalar utzi eta Igantzirako bidea hartuko dute segidan, eta Arantzarakoa gero. Eta **Berara** doazenak, berriz, 03:30ean, 04:30ean, 06:00etan eta 07:00etan. Joan-etorria borts euro kostako da. Bortzirietako bertze herrietako bestetan ere izanen da Bestabusa zerbitzua.

ZUBIONDO
Jatetxea
agardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 625 474

BORTZIRI
UNSION ANAIK
Sukalderako altzariak
Bereko etxea • LESAKA
Tel: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

ASISTENCIA DOMICILIARIA
ZENTURIA
Zure zerbitzura eguneko 24 orduak...
... urteko 365 egunak
➤ Arreta pertsonalizatua - garbitasuna-Jaiki/Oheratu
➤ Familia-laguntza - etengabeko laguntza
➤ Etxeko laguntza - garbitasuna - konpainia
➤ Fitoterapiak - produktu naturalak
➤ Fisioterapia - errehabilitazioa etxean
➤ Asteburuak - familiaren atsedenaldia
➤ Gauak - ospitalea/etxea
➤ Barneko langileen kudeaketa
➤ Prestazio ekonomikoaren kudeaketa (mendekotasun legea)
ZENTURIA-rekin ETXEAN BEZALA
...NON EZ!
Telefonoak: 943 639 049 - 656 737 698
Juncal kalea, 24 - solairuarte- 20304 Irun
ayudadomiciliaria@zenturia.es
www.zenturia.es

KIROLA → BERA KO TXIRRINDULARI ELKARTEAK ANTOLATUTA

‘La Miguel Indurain’ lasterketa uztailaren 25ean egingen da Beran

Ibilbideak aitzineko urteetakoak izanen dira

TTIPI-TTAPA | BERA

La Miguel Indurain Nazioarteko XIX. Txirrindularitza proba uztailaren 25ean egingen da Beran, eta urtero bezala, bi ibilbide izanen dira aukeran: luzea –186 km–, eta laburra –113 km–.

Interesatuak bi modu dituzte izena emateko: Internet bidez www.laindurain.com-en edo zuzenean. Internetez egitekotan, federatuak 23 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek 29 euro. *Online* apuntatzen ez direnek, federatuak baldin badira, 25 euro ordaindu beharko dituzte eta 31 euro ez direnek.

Zuzenean apuntatzeko, hilaren 24an 15:00etatik 21:00etara edo 25ean, 06:30etik irteera ordua baino ordu erdi lehenago arte egingen ahal da kiroldegian.

Mikrotxiparen fidantza gisa 10 euro gehiago ordaindu beharko da.

AUTOBUSA

Berako Txirrindularitza Elkartek txirrindularien laguntzako doa-ko autobusa ere paratuko du proba egunean. Hala, gida batekin ibilbide turistiko egingen ahal izanen dute. Dena den, tokia mugatua denez, lehenbailehen apuntatzea komeni da: 948 631 147-ra deituta (15:00-21:00).

Informazio gehiagorako ere telefono horretara deitu edo ccberarra@laindurain.com-era idatzi.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Uztail hondarrean Euskal Futbol Kanpusaren bigarren txanda

Euskal Futbol Campus elkarteak, Lesakako Beti Gazte elkarteak eta Lesakako Udalak euskal futbol kanpusa antolatu dute aurten ere, futbolaren bidez, euskararekin harremanak sendotzeko asmoz. Zazpigarren edizio honetako lehenengo txanda ekainaren 28tik uztailaren 4ra egin da Lesakako Mastegi futbol-zelaian, monitore lanean Lorea Sarobe beratarrak, Oihane Gil, Asier Lezertua eta Ibai Ardanaz izan dituztela. Hurrengo txanda, berriz, uztail hondarrean egingen da. Lehendabiziko txanda honetan 50 bat mutiko aritu dira, 8 Lesakakoak, baina gainerako gehienak Iruñerrikoak, Lizarraldekoak eta Erribera aldekoak.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza gaiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza



Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

DONEZTEBE

AISIALDIA → X. EDIZIOA

Uztailaren 12an hasiko da Erreka Elkarteak antolatutako Udako Kirol Eskola

Izen-ematea
ortziral honetan
egin beharko
da frontoian

TTIPI-TTAPA

Ez du geldirik egoteko asmorik Erreka Kirol Elkartek eta denboraldia akitu orduko, bertzelako eginkizunei ekin die Udalaren laguntzarekin. Aurten hamargarren aldiz, Udako Kirol Eskola antolatu du. Eta herriko zein inguruko neska-mutikoek hainbat kirol jarduera egiteko aukera izanen dute hilabete batez.

Uztailaren 12an hasiko dira ikastaroak eta abuztuaren 6an akitu, eta astelehen, asteazken eta ortziraletan izanen dira –uztailaren 23ko klasea asteartearekin, hilak 20, egingen da–. Lehenbizko taldea 11:00etatik 12:00etara ariko da eta bigarrena 12:00etatik 13:00etara. Ikastaroko jarduerak eskoletako frontoian eta kiroldegian izanen dira.

IZEN-EMATEA

Interesatuak izen-ematea ortziral hone-

tan, uztailak 9, egin beharko dute, 11:00etan frontoian. Prezioari dagokionez, joan den urteko berdina dira: 33 euro bazkideek eta 36 euro bazkide ez direnek.

Haurren begiralea, berriz, Ainara Marizkurrena izanen da.

Bi eguneko mendi irteera

Aurten bigarren aldiz, bi eguneko mendi ateraldia antolatu du Erreka Elkartek. Menderrekako mendietan egingen da, uztailaren 17an eta 18an.

Uztailaren 17an, larunbatarekin, herritik atera eta ondorengo ibilbidea egingen dute mendizaleek: Doneztebe - La-beaga - Uztakorta - Gorostieta - Otxola - Basakabi. Basakabin afaldu eta lo egingen da eta bihar amunean, uztailak 18, bertze bazter hauetan ibiliko dira: Basakabi - Iruñiarri - Sorginzelai - Loizate - Ekaitza - Mendaur - Doneztebe.

Egun bakoitzean 35 kilometro inguru egingen dira.



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO ETA ONDIKOL

Joan dira aurtengoak


Oskar Mindegia kirol zinegotzi eta judo irakasleak botatako txupinazoarekin hasi ziren aurtengo bestak, baina goiko argazkian ageri den kirolari lotutako bertze herritar kuadrillak ere parte hartu zuen txupinazoan. Egun haundian, ohiko bandera dantza egin zuen Eduardo Almandozek, eta Trapatan dantzaren txanda etorri zen ondotik. Gainerako egunak ere ederki joan ziren.



ARGAZKIAK: ERREKA KIROL ELKARTEA

236 lasterkalari krosean

Arrakastatsua izan zen hagitz, ekainaren 27an Erreka Kirol Elkartek antolatuta egin zen Herri Krosa. Inoiz baino lasterkalari gehiago elkartu zen: 236 guztira! Eta ibilbide osoan ere giro ederra sortu zen. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, helduen kategorian, «luxuzko maila» izan zen, eta azkenean Antonio Etxeberria nagusitu zen, Jaouad Bolameren aitzinetik. Emakumezkoetan, berriz, Rosi Talaverak irabazi zuen, eta Ana Zelaieta herritarra bigarrena izan zen sailkapenean.



BESTAK → SANTIAGO BESTAK UZTAILAREN 23TIK 26RA

Ortziral ilunabarrean botako den txupinazoarekin hasiko dira bestak

Zikiro-jatearekin emanen zaie lau eguneko beste bukaera

ORTZIRALA 23

20:00etan txupinazoa. **Ondotik** zopak. **Gero** dantzaldia **MODESTO** akordeoilariarekin.

LARUNBATA 24

10:00etan diana. **Ondotik** gaztelu puzgarriak. **18:00etan** Gorriti eta bere animaliak haurrendako. **21:00etan** tortilla lehiaketa. **Arratsalde eta gauzez** dantzaldia **AIERRIK**-ekin.

IGANDEA 25 Santiago Eguna

08:00etan Aurorak. **10:00etan** diana. **11:00etan** Meza Nagusia. **12:00etan** dantzari ttiikien emanaldia. **Ondo-**



ARGAZKIAK: ARROSATXO IBARRA

Neska-mutikoez ederki pasatzeko hainbat ekitaldi izaten dituzte bestetan. Baina gazte eta helduek ere izaten dute non gozatua.

tik luntxa. **17:00etan** mus txapelketa eta berrendua ostatuan. **Arratsalde eta gauzez** dantzaldia **SANTXOTENA**

akordeoilariarekin.

ASTELEHENA 26

10:00etan diana. **12:00-**

etan toka txapelketa. **14:00etan** zikiro jatea **SANTXOTENA** akordeoilariarekin. Horrela akituko dira bestak.

HONDAKINAK

Hiri hondakinen egutegiak badu zenbaki saritua

TTIPI-TTAPA

Birziklapenaren inguruko hainbat aholku emanaz, Baztan, Bertizarana, Bortzirak eta Malerrekan, Hiri-Hondakinen Mankomunitate edo udalen eskutik urte hasieran banatu ziren egutegiei zeramaten zenbakien zozketa egin zen ekainaren 30ean Donezteben. Irailean bi lagunentzako Kanariar Uharteetan aste bateko egonaldiaren zozketa egin zen. Hiru zenbaki atera dira: 5.257; 7.334 eta 2.113. Saritua zenbaki bakarra da, 5.257a, eta lehendabiziko zenbaki hori agertzen ez bada, bigarrenak eramanen du saria, 7.334ak eta bertzela, hirugarrenak, 2.113ak.

Hiru kasuetan, uztailaren 31 baino lehen deitu beharko da Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateko 948 635254 telefonora.

BELARRA JATETXEA

Ametz. DONEZTEBE
948 450 306
www.restaurantebelarra.com

MIGUEL ETXEBERRIA
zurgindegia

zurgin lanak orokorrean

Ongi pasa bestak!

Tel: 948 450 310 · Mugikorrak: 605 677 997
ELGORRIAGA

CAMPING RIZTICIN

OSTATU JATETXEA

- pntxok
- bokatok
- rozok
- plater konbinatuak
- menuak
- karta

31791 SUNDILLA NAFARRA
Tel: 948 450 542
948 450 543
info@campingarizticin.com
www.campingarizticin.com

ITUREN

HERRI KIROLAK → IPARRALDEKO JOKO TORNEOA

Joakin Aioroak bertze garaipen bat eskuratu du ingudearekin

Larunbatean Nafarroako Txapelketan parte hartuko du Iruñean

Arkaitz MINDEGIA

Ekainaren 27an bukatu zen Iparraldeko Joko Torneo eta ingudea altxatzeko modalitatean txapela lortu zuen Joakin Aioroak.

Iparraldeko Joko Torneo hau ligaxka moduan jokatzen da, hiru jardunaldi jokatuz, eta saio guzietan egindako altxaldi guziak gehituz Joakinek lortu zituen gehien. Lerro hauen bidez, zorionak!

NAFARROAKO TXAPELKETAK

Baina orain Nafarroako Ingude Altzatze Txapelketari begira egonen da seguraski. Iruñeko sanferminen barne jokatzen den txapelketa honetan parte hartuko baitu larunbat honetan, uztailak 10. Dena den, ez da herritar bakarra izanen Foru Plazan herri kirol erakustaldi eta txapelketetan parte hartuko duena: Maika Ariztegi ere hantxe egonen da. Joan den urtean gizonetako zein emakumeetako Ingude Altzatze Txapelketako garaipenak lortuenera ekarri zituzten, eta ikusiko da aurten zer gertatzen den...



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Nafarroako Ingude Altzatze Txapelketa irabazi zuen Joakin Aioroak Iruñeko Sanferminetan.



ARGAZKIA: ARKAITZ MINDEGIA

San Juan Bezperako ospakizunak

Leku aunitzetan bezala, gure herrian ere San Juan Suak egin ziren. Haur, gazte eta zaharrak «sarna fuera, sarna kanpora, onak barrena, txarrak kanpora, San Juan viene, San Juan va, gora San Juan bezpera» erranez saltoka aritu ziren ekainaren 23an. Aurtitzen, bertzelde, ekainaren 26arekin ospatu zuten San Juan Bezperako afarian, 50-55 lagun inguru elkartu ziren elkarteetan. Afariaren ondoren kantuan eta dantzari aritu ziren Doneztebeto trikitilarien doinuekin. A ze giroa egon zen, eguna argitu eta ederki gosalduta erretiratu baitzen jendea.

Eginzazu TTIPI-TTAParen alde
proiektu zenbakia:
15.996
Zure laguntza eskertzeko,
buktas edo hiru opari izanen duzu!

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA
AGENTEA ANTON LEGORBURU GOÑI
Ate berriak kolektatu eta reparazio lanak
Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

AI SIALDIA → LUDOTEKA ZERBITZUA

Uztaileko goizetan ludoteka izanen dute neska- mutikoek

Aurrekoetan bezala, Leire eta Ixiar dira begiraleak

Fermin ETXEKOLONEA

Hilabete hasieratik egunero elkartzen dira neska-mutikoak eskolako beheko solairuan, goizak modu dibertigarrian pasatzeko. Astelehenetik ostiralera, 09:30-etik 12:30era egiten dute hitzordua hamar bat gaztetxok, Leire Bazterrika herritarra eta Ixiar Bazterrika iturendarra begirale dituztela.

Oraingoz, uztaila akitu arte eskaintzekoa da ludoteka, baina baliteke luzatzea. Joan den urtean, esaterako, gurasoak eta haurrak gus-tura zeudela-eta, hasieran uztailean bakarrik egitekoa zena abuz-tuan ere egin zen. Ikusi-ko da, beraz, aurtengoa nola joaten den. Bitar-tean, jokoak, ateraldi-

ak, marrazkiak eta abar egiten segituko dute.

Film bat grabatzen gurean

Bernardo Atxaga idazlearen *Bi anai* libu-ruan oinarritutako film bat egiten ari da Imanol Rayo gidoilari eta zuzen-daria. Eta horretarako, Artikutza, Lesaka eta Iu-rengo parajeeekin bate-ra, Zubieta ere egokia iruditu zaio pelikula egi-teko. Hala, uztailaren 16an eta 19an gure he-rrian ibiliko dira grabake-tak egiten. Eliza inguru-an egiteko asmoa omen dute, eta baliteke ingu-ruko bideak edo moztu behar izatea. Dena den, herritarrei hori alde-z aurretik jakinaraziko zaie.

Bi aizkolari

Aizkora ikusteko ez ezik, aritzeko ere afizioa badago herrian. Horren bi adibide dira Arrazoko Joxe Antonio Loiarte eta Palazioko Mikel Inda-



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

16 lagunekoa kuadrilla elkartu zen joan den urtean ludotekan, eta besteak beste, argazkian eskuetan dituzten panpinak egin zituzten.

koetxea. Bi hauek oste-gun honetan, uztailak 8, Iruñeko Foru Plazan jo-katuko den Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketan parte hartuko dute.

Indakoetxea betera-noa da honetan, lehen ere parte hartutakoa bai-ta. Palaziokoarentzat, ordea, lehenengo aldia izanen da. Zorte on!

Sahararrak oporretan

Ikasturtea akitu eta 12 urte bete zituen egun berean hartu zuen Du-bak Saharako bidea, San Pedro Egunean, hain zu-zen. Azken urteotan be-zala, Ibarrenean pasatu du Saharako neskatoak ikasturtea, eta oporre-tan sorterrira joan da. Ea oporrak akitu orduko,



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Musikariek akitu dute denboraldia

Mendaur Trikitixa Eskolako gaztetxoek txukun akitu dute denboraldia. Eta behar bezalako bukaera emateko, ikasturte bukaerako kontzertua eskaini zuten ekainaren 1ean Aurtizko Frontoian. Oso emanaldi po-lita egin zuten eta urte guztian landutako abestiak jo zituzten. Bederatzi zubietar, hamaika iturendar eta aurtiztar eta hiru eratsundarrek parte hartu zuten, Ai-nara eta Oihana irakasle aurtiztarren laguntzarekin.

berriz ere gure artean du-gun, oso integratua bai-tago herrian.

Batzuk joan, eta bes-teak etorri. Aurten ere

Muna bisitan izanen du-gu udan. Saharatik os-tiral honetan ailegatuko da eta Lizartzan pasa-ko du uda.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel. 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

HOBETO bizi!

- Eskailerak igotzeko aulkiak, plataformak, igogailuak
- Gurpil-aulkiak, makuluak, tuku-takak
- Bainugelen egokitzeta
- Higiene pertsonalerako tresna egokituak
- Janzten laguntzeko tresnak
- Etxeko tresneria egokituak
- Segurtasunerako alismak
- Telefono bereziak
- Errehabilitaziorako artikulak
- Joku bereziak

www.hobetobizi.net

Fuenterrabia, 37.aren parean • IRUJ • T. 943 633 014

LEGASA

DIRULAGUNTZAK → LANDA GARAPEN IRAUNKORRA

Aterpe turistiko bat egiteko proiektua aurkeztu da Espainiako Gobernuan

Landa Garapen Iraunkorreko Programaren laguntza jasotzeko lau proiektu zerrendatu dira

TTIPI-TTAPA

Espainiako Gobernuak abian duen Landa Garapen Iraunkorreko Programaren barne, Bertizaranako behar eta proiektuen zerrendak aurkeztu dira, dagokionak azterketa eta balorazioa egin dezan. Eta Legasaren kasuan, hauek dira egingadako ekarpenak:

Alde batetik, herriko bideen sailean, Irisoko bidea moldatzeko laguntza eskatu da. Gutti goitibeheiti kilometro bateko luzera izanen luke,

ke, eta horrekin batera Leokadira doan bidea ere konpondu nahi da. 72.500 euroko aurrekontua izanen luke.

Bertizko parkearen ekintzen osagarri gisa, aterpe turistiko bat sortzeko ere dirulaguntza eskaera egin da. 200.000 euroko aurrekontua izanen luke.

Ugaldea eta merenderoa ere moldatu nahi dira, gozamina eta harrera-gunea eta ingurumenaren mantenua bermatuz. Kasu honetan, aurrekontua 120.000 eurokoa da.

Eta oraingo Kontzejua konpontzeko 35.000 euro eskatu dira.

Pilotalekuko komuna

Hemendik aitzinera, frontoiko komun bat irekita utzi behar du Kontzejua.



UTZITAKO ARGAZKIA

Trenbideko bidean bankuak

Doneztebe aldera, trenbideko bidean, banku batzuk jarri dira, aproposak, buelta bat eman bidenabar deskantsatzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

San Juan Suak urtetik urtera guttiago

Urtero bezala, San Juan bezperan, ekainaren 23an suak egin ziren. Urtetik urtera su guttiago egin arren, pare bat egin ziren. Ea hurrengo urtean jende gehiago animatzen den ohitura zaharrak ez galtzeko.

Bide zaharren berreskuratzea
Xistapur-mokorro bide

zaharra errekuperatu egin da auzolanean, eta orain Irisoko bide za-

harra errekuperatzen ari dira herriko langileak.

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA

Andregaiaren erramua + elizako loreak + detaileak eginez gero **KOTXETIKO LOREAK OPARI**

NARBARTE
T. 948 59 22 00

Komunikazioak detaileak, Karonak elizara eta kanpoan zutia eramaten ditugu. Kanpoan eta barneko landareak, zuhaitzak, palata salgai, barneko landareetan aukera zabala...

F. LANCHAS

Akrobata eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzalea
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 736 M: 607 406 781

Ttapi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

Eginzazu **TTIPI-TTAPA**ren alde

proiektu zenbakia: **15.996**

Zure laguntza eskertzeko, boltsa eder hau opari izanen duzu!

MALERREKA

EUSKARA → KONTSEILUA

45 entitatek lortu dute Bai Euskarari Ziurtagiria Malerrekan

Ziurtagirien lehen banaketa ekitaldia egin da Donezteben

TTIPI-TTAPA

Joan den urte akabailan jarri zen abian Malerrekan Euskaraz bai dinamika, euskararen normalizazioa modu parte-hartzailean bizkortzeko helburuarekin. Ordutik honat, Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzera ematen eta eskualdeko establezimendu eta elkarteak bisitatzen aritu dira. Eta

lan eskerga horren ondorio dira ekainaren 18an Donezteben banatu ziren Ziurtagiriak. Malerrekako 45 entitatek eskuratu dute guztira Bai Euskarari Ziurtagiria, eta horietatik 44 berriak dira. 10ek *Zerbitzua euskaraz* maila eskuratu dute, eta gainerako 35ek *Euskararen bidean* maila.

Malerrekako euskalgintzak urte batzuk daramatza eskualdean euskararen erabilera bultzatzen: «Baina pausu bat haratago emateko ordua ailegatu zela ohartu ginen, horre-



UTZITAKO ARGAZKIA

Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa Donezteben egin zuen Kontseilua.

gatik jarri genuen martxan Euskaraz bai dinamika 2009ko urria», azaldu zuen Joseba Indabere Malerrekako euskalgintzaren ordezkariak ziurtagirien banaketa ekitaldian. Eta gaineratu zuen ekainaren 18koa «egun pozgarria» izan zela Bai Euskarari Ziurtagiriarekin posible izanen delako Malerrekan euskarazko zerbitzuak eskuratzeko. Esker ona adierazi zien Ziurtagiria es-

kuratu duten 45 entitatei eta herritarrei ere dei egin zien euskararen erabil dezaten egunekoan: «Ez dugu ahan-tzi behar guk, herritar zein bezero gisa, euskararen aldeko apustuari eutsi behar diogu-l. Euskaraz bizitzeko jarrera gure egin eta indartuz gero, euskararen normalizaziotik hurbilago izanen gara. Horixe da bidea».

Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkartearen

zuzendariak, bere alde-tik, zoriondu egin zituen Ziurtagiria lortu zuten 45 entitateak: «45 Ziurtagiri banatu ditugu eta kopurua garrantzitsua da, eta benetan pozgarria. Baina are garrantzitsuagoa da horren atzetik dagoen lana: egunez egun ematen dituzuen urratsak, lortzen dituzuen helburuak eta zuen konpromisoaren bitartez egunerokoan eragiten duzue-na».

GIZARTEA

SARIKETA → NAFARROAKO GOBERNUAREN ESKUTIK

Karlos III.a Prestuaren Gurutzea jaso du Arkupeak elkarteak

Adinekoak integratzen laguntzeagatik saritu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Karlos III.a Prestuaren Gurutzea kondekorazioa 1997an sortu zuen Na-

farroako Gobernuak, Nafarroako aurrerapenari bakoitzak euren esparrutik lagundu dioten edo Foru Komunitatea bere mugetatik landa erakutsi duten pertsona eta erakundeen merezimenduak nabarmentzeko asmoz. Bada, aurtengo dominak ekainaren 29an ba-



UTZITAKO ARGAZKIA

Arkupeak elkarteko eta bertze erakundetako sarituak, Gobernuako ordezkariekin.

natu ziren Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan, eta sarituetako bat Arkupeak Erretiratuen Elkarteak izan zen. «Nafarroaren iparraldeko ia

50 herritan adinekoak integratzen eta dinamizatzen funtsezko lana egin duelako» eman diote aurtengo Arkupeak elkarteari saria. Domina

Felipe Ganboa Jorajuria lehendakariak jaso zuen eta Eusebio Maritorena Leitzako ordezkaria ere ekitaldian izan zen.

GIZARTEA

ESKUALDEA → BAZTAN, BORTZIRIAK, MALERREKA ETA LEITZAN

Inoiz baino ume gehiago etorriko dira aurten Sahararik uda pasatzera

Ortziral honetan ailegatuko dira, bazkaltzeko orduan

TTIPI-TTAPA

Azken urteotan beza-la, bisitan izanen ditugu Saharako haurrak uda honetan. Ortziral honetan, uztailak 9, ailegatuko dira, eguerdi aldera, eta gainera, inoiz baino gehiago etorriko dira: 17 neska-mutiko. Horietatik lauk Malerrekian pasako dute uda -Iturenen eta Zubietan bana eta bik Sunbillan-; bik Bortzirietan -bana Beran eta Etxalarren-; bederatzik Baztanen -bina Erratzun, Arizkun eta Elizondon eta bana Azpilkuetan, Elbeten eta Oronozen-; eta bik Leitzan -biak familia batek hartuko ditu-. Saharaztan Baztan Bidasoako Saharar Herriaren Aldeko Elkartasun Taldearen eskutik etorriko dira Baztan Bidaso aldera, eta Leitzaren kasuan, Gizarte Zerbitzuen laguntzare-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Saharako zortzi neska-mutiko etorri ziren eskualdera uda pasatzera.

kin. Azken honetatik adierazi digunez, «aurten haurrak ekartzea oso garestia izan da». Haur bakoitza 792 euro kostatzen baita.

ZENBAKI SARITUAK

Saharako haurrak ekartzeko dirua lortzeko zozketa egin du aurten ere Saharaztanek eta hauek dira zenbaki sarituak.

Arizkunen, Uxoia jatatxean otordua irabazi duena 3.128 zenbakiaren jabea izan da; **Ordoki** likorerian 3.060 eta

Bixta-eder jatatxean 2.423. **Elbeteko** Ostatuan 1.497. **Elizondon**, Galarzan 0174; **Eskisarin** 4.035; **Kortarixar**en 2.041 eta **Itzalargi** kobordan 0656. **Garztainen**, Frantsenen 3.700. **Lekaroz**en, Larraaldean sagardotegian 1.325. **Mugairiko** Pieresenean 3.438.

Doneztebenen, Belarra jatatxean, 3.789. **Dona-mariako** Herriko Ostatuan 1.450 eta **Dona-mariako** Bentan 4.091. **Oizko** Ostatuan 2.252. **Beintzako** Ostatuan

2.049. **Ituren**en, Herriko Ostatuan 3.147 eta **Altxunea** erretegiaren 0557. **Etxalarren**, Herriko Ostatuan 3.758 eta **Elutsan** 0216. **Beran**, Errekalden 0744 eta **Zubiondon** 3.962. **Zubietan**, Herriko Ostatuan 3.259. **Lesakan**, azkenik, Bereau hotelean 1.068.

Bakoitzak bi pertsonendako afaria edo bazkaria izanen du dago-kion jatatxean eta bi hilabeteko epea otordua egiteko. Joan baino lehen deitu beharko da.

ERREPIDEA

10,45 milioi euro Baztan-Bidasoako errepideak mantentzeko

TTIPI-TTAPA

Oronoz - Mugairiko zentrotik kudeatzen diren eskualdeko errepideen mantentze lanetarako 10.454.096 euro onartu ditu Nafarroako Gobernuak. Hala, Bortzirietatik Baztanerako errepideetan inbertituko da diru kopuru hori. Dena den, lau urtetan gastatzeko izanen da: 2.425.474 euro 2011-ko aurrekontutik bideratuko dira, 2.546.748 euro 2012ko aurrekontutik, 2.674.085 euro 2013kotik eta gainerako 2.807.789 euroak 2014kotik. Istripu eta larrialdi kasuen arreta, seinalizazioak, garbiketa lanak, konponketak, zoladurak, elurra eta izotzaren garbiketa... Gisa horretako lanetarako erabiliko da Gobernuak ekainaren 21ean onartu zuen diru-partida.

Koipe eta olio bereizleen kutxatilen garbiketa

Sukalde industrialetako Koipe eta olio bereizleen Kutxatilen Garbiketa eta Kudeaketa **ZERBITZU INTEGRAL BERRIA** (LER 190809 hondakina). Honekin administrazioaren aurrean sukaldeko uren kudeaketa egokia frogatu ahal izango duzu eta Legea bete.

Landare olio erabileraren kudeatzaile baimendua: GNP/23/NA/2004
Hondakin arrakutsuen gaitasuneko kudeatzaile baimendua: T/153/NA/2005

ECOGRAS

Erabilitako landare olioaren bilketa

Tel.: 902 366 251 • ecogras@ecogras.es • www.ecogras.es

Zaindu zeure ingurumena!

EKONOMIA → UDAL KONTUAK

Udalak 159.274 euroko gerakin positiboarekin itxi du urtea

Azken hiru urteotan Udalaren zorra jaitsi egin da

TTIPI-TTAPA

Krisiak krisi, datu baikorrekin itxi du 2009a Udalak. Ekainaren 25ean egindako batzarrean onartu zituen joan den urteko kontuak, eta diru-sarrerak eta irteerak kontuan hartuz, 159.274 euroko gerakin positiboak izan zituen. Gastuari dagokionean, berriz, 4.054.881,85 euro gastatu ziren iaz.

Hauek izan dira 2009ko proiektu nagusienak: udaletxea berritu eta igogailua jarri (400.000 euro); biribilgune berria egin (225.000 euro); abeltzaintzako azpiegiturak—Baztarlara ura eta harizko pista—(250.000 euro); suhiltzaileen kamioi berria (112.000 euro); Haur Eskolako hobekuntzak eta 0-1 urtekoen gela lortu (70.000 euro); merkatarientzako azpiegiturak (60.000 euro); herriko obra tikiak eta adokina (120.000 euro) eta edukiontzi horiak (25.000 euro). Inbertsio hauek guztiek %70etik gorako dirulaguntza izan dute.

ZORRA BEHERANTZ

Xabier Zabalo alkateak adierazi digunez,



ARGAZKIA: SAGRARIO LASARTE

Herriarteko Txapelketako finalaren atarian

Herriarteko Pilota Txapelketako finaletik kanpo gelditu da Aurrera Pilota Eskola, baina gutxi gatik, finalerdietan kanporatu baitu Baztanek. Lehen itzulian, 1-3 irabazi zuten baztandarrek Leitza, baina bigarren lehian, lana gogotik eginarazi zieten Aurrerakoek baztandarrei. Alebin mailan, 18-14 galdu zuten Ander Alduntzin eta Jon Lezeak. Infantil mailan, Anartz Olanok eta Mikel Sagastibelza Lasartek 9-18 irabazi zuten, eta jubenil mailako partidaren ere irabazi egin zuten Jon Jaunarenak eta Mikel Hernandorenak, 22-10. Senior mailako azken partida erabakiorrean, ordea, Asier Gartzia eta Mikel Iriartek 22-18 galdu zuten. Beraz, finaletik kanpo, baina lan txukuna eginda gelditu dira Aurrerakoak.

azken hiru urteetan beharako bidea hartu du Herriko Etxearen zorrak. Hala, «Udalak jadanik 500.000 euro amortizatu dituela» azaldu digu.

Eraikin erlijiosoak publiko izateko

Eraikin erlijiosoak publikoak izatea nahi du Udalak eta hauek herriari itzultzeko helburuarekin, mozioa onartu du berriki, hautetsi independentisten eta EAren aldeko botoekin.



ARGAZKIA: JUAN MARI BARRIOLA

Mendi eta erreka garbi mantentzeko eskatu du Udalak

Herriarrak mendi eta erreka txukun mantetzeak duen garrantziaz jabetzea nahi du Udalak eta hala, dei berezia egin die «gureak, guk zaintzen ez baditugu ez duelako inork eginen». Horrela adierazi digu Juan Mari Barriola mendiko zinegotziak. Horren harira, urtero bezala, DBH 4. mailako ikasleek auzolana egin zuten joan den hilabetean. Leitza erreka errepide bazterrak eta erreka-zuloak garbitu zituzten, eta bi kamioi zabor bildu. 28 lagunek hartu zuten parte ekimen honean eta garbitzeaz gain, «mendietan zaborrak pilatzeak duen arrisku eta kalteaz ohartu ziren».

FLASH

Bisita gidatuak

2010eko uda oihana-ren bihotzean izenburupean bisita gidatuak antolatu ditu Plazaola-ko Partzuergoak uda honetarako. Guztira 14 ekintza prestatu ditu eta horietatik hiru herrian egingen dira. Alde batetik, **Alde Zaharra** eta **Leitzalarreko izei zuriak** ikusteko aukera eskainiko da. Larunbatetan, plazatik abiatuta, hiru orduko iraupena duten ateraldiak izanen dira. Interesatuak 948 507204 telefonora deitu beharko dute.

Horrez gain, Perurenatarren **Peru-harri museoan** ere egingen dira bisita gidatuak. Larunbatetan eta igandetan 10:30etik 14:30era egonen da zabalik. Joan nahi duenak 659 701 045era deitu behar du. Kristina Saralegiren **Arro baserrian** ere egingen dira bisita gidatuak uda honetan. Abereak ikusteaz gain, tailoak egiteko tailerra eta dastatzeko aukera ere izanen dira. Ordu bat eta erdiko iraupena izanen du bisitak eta interesatuak 610 378543ra deitu behar du.

Obrak Atekabeltzan

Herriko hainbat talderen bilgune bilakatu nahi du Udalak Atekabeltza. Baina horretarako, obrak egin behar dira. Eraikinaren egitura egoera onean dagoela aprobetxatuz, teilatua, fatxada eta leihoak aldatu nahi dira eta lanek 220.000 euroko aurrekontua izanen dute. Udalak beharrezkoak diren egokitzeak egiteko dirulaguntza eskatu dio Cederna-Galarur elkarteari.

gaztelu scl
iturgintza
kalifikazioa · saneamendua · gasa
Tfnoa: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

GOIZUETA

KULTURA → 'GOIZUETAN BADA GIZON BAT. TRABUKOREN KANTAKO MISTERIOAK'

Trabukoren kantako misterioak argitu eta argitaratu ditu Patziku Perurenak

Karretoko semeak liburua kaleratu du Alberdaniarekin

Esteban AROTZENA

Mikel Laboa haundiaren ahotsari esker hain ezagunak diren Trabukoren bertsoetan kontatzen den historiari buruzko zalantza guztiak argitu ditu Patziku Perurenak orain dela aste batzuk plazaratutako liburuan.

Berdabio baserrian bizi zen maizter Joseph de Echagarai, Trabukoren salaketaren ondorioz Iruñean kartzelera-tu zutenean. 1747an gertatu zen hori. «Fabri-

cadores y expendedores de dieciochenos» omen ziren historiaren protagonista den Echagarai eta beste hiru lagun –Echeverria, Qui-laberri eta Navaz–, diru faltsuaren egileak, alegia. Elizetan eta ermitetan lapurtutako zilarra erabiltzen omen zuten horretarako.

Karretoko idazle eta ikertzaileak Iruñeko Artxibo Haundian aurkitutako datuen arabera, lau egunetan egin zuten akusatuek Goizuetatik Iruña bitarteko bidaia, zaldi gainean eraman baitzituzten. Echagaraik bertsoetan dioena ere, egia dela garbi azal-

tzen omen da, bi seme eta hiru alaba uzten zituenarena, esate baterako. Zaharrenak 9 urte omen zituen aita preso hartu zutenean. Lau kondenatuak urkatuak izan zirelako kontua, berriz, ez omen da egia, azkenean libre gelditu baitziren pobretzat deklaratu zituztelako.

Goizuetan bada gizon bat. Trabukoren kantako misterioak izenburua eman dio Perurenak 436 orriko liburuari. Alberdaniak argitaratu du eta 24,50 eurotan dago salgai.

Artikutza pantaila haundian

Telebistako serieak edo film luzeen erroda-jeak ohiko xamarrek di-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Goiko argazkian, Patziku Perurena, eta behekoan, kaleratu berri duen liburuaren azala.



ra gurean azken aldian. Atxagaren *Bi anai* liburuan oinarritutako pelikularen txanda da orain-goan, eta Imanol Rayoren zuzenaritzapean Artikutzan filmatu dituzte zenbait pasarte lehen-go astean.

0-3 urteko haurrak. Lanpostua

0-3 urte bitarteko haurrak «ofizialki» eskolaratzako sortu diren arazoei aurre egin nahian, antolatu egin dira

gurasoak. Udalarekin bildu dira dagoeneko haurrek erabiliko luke-ten egoitzaz hitz egiteko. Gainera, zaintzaile lana egin nahi duten guztiei deialdia luzatu diete hil honen 15a baino lehen izena emateko. Rakel edo Olaiarekin hitz egin behar da horretarako.

Baialtzinikin...

Youtuben 'felixloi' paratuta agertuko zaizkizula Umore Ona Abesbatzaren Goizuetako eta Hernaniko zenbait emanaldiren eta Kurasaaleko kanten bideoak?

behetik

Eskalerak igotzea... ez da aztopol
plataformak
igogailu bereziak
aulki bereziak...

Aforga-biki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.bebetik.com



ARGAZKIA: FERNANDO

Greba orokorrarekin bat egin du herriak

Sindikatu abertzaleek ekainaren 29rako luzatutako greba deialdiak herria gelditu zuen. 20:00etan kontzentrazioa egin zen plazan.

BESTAK → LAGUN ARTEKO GAZTEEN ESKUTIK

Giro eta eguraldi ederrean joan dira San Pedro jaiak

Otorduak, musika, etxez etxeko eskea, Meza eta ohiko prozesioa egin dira

Juana Mari SAIZAR

Duela bi aste, ekainaren 25, 26 eta 27ko asteburuan, San Pedro jaiak ospatu ziren herrian. Urteroko moduan, ostiraletik igandearainoko tartea hartu zuten eta Lagun Arteko gazteen afariarekin hasi ziren ospakizunak, ostiral gauean. Larunbat goizean, baserrietako eskea egin zuten gazte-

ek gosariaren ondotik, Edurne eta Eneritz trikitilarien laguntzarekin.

Iluntze aldera, berriz, musika egon zen plaza lehen aipaturiko trikitilariekin, eta gauean, afaria, nahi zuen guztia-
rentzat. Hala ere, esan beharra dago, ez zela oso arrakastatsua izan otordu hau. Gaueko dantzaldiarekin jendearen giro ona zabaltzen hasi zen eta oso umore onean amaitu zen larunbata.

Igandean, ohitura den moduan, gosariaren ostean, Meza izan zen San Pedoren ome-
nez eta lau mutil gazte-
ren laguntzaz, honen irudia herrian barna pro-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Lagun Arteko gazteak Meza ostean hamaiketako banatzen.

zesioan erabili zen. Meza amaitu ondoren, gazta, ogia eta ardoa eskaini zuten Lagun Artekoek Mezara joandako guztientzat, eta honekin batera, herriko eskeari ekin zioten. Bazkal ostean, Gorka eta Alaitz herriko trikitilariak beren saioa eskaini zuten, festei amaiera emanez.

Denboraldiko azken sokatira saioa egingen du larunbatean Aresok

600 kilokoen kategorian, azken lehia jotatuko du Aresoko sokatira taldeak larunbat honetan, uztailak 10, Erandion (Bizkaia). Aldi berean, horixe izanen da denboraldi honetako Aresoren azken saioa. Izan ere, 680 eta 640 kiloko txapelketak bukatuta, 600ekoaren ondotik, 580 kilokoa baino ez da geldituko, eta honetan ez du parte hartuko Aresok.

680 kilokoa bostgarren postua eskuratu zuen sailkapenean, eta 640koan hobeto moldatu zen, hirugarren gelditu baitzen. 600ekoan, berriz, lehenengo jardunaldian hirugarren egin zuen. Ikusiko da, beraz, nola bukatzen duen denboraldia larunbatean. Erandioko Goiherrian, San Cristobalen izanen dira tiraldiak, 17:30ean.

Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?
HAU DA ZURE AUKERA



ELGORRIAGA
BALNEARIO - BALNEOTEC

Errotaldea z/g
31744 Elgorriaga (Nafarroa)
Tel. 948 45 60 45
www.balnearioelgorriaga.com

IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA
bakarrik 10€ pertsonako

Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan)
Eskaintzaren azken eguna: abuztuak 31

IGERILEKU TERMALAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA
BAZKARIA EDO AFARIA ETA FRESKAGARRIA EDO KAINA

astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan **26€ pertsonako**
larunbat goiz eta arratsaldeetan eta igande goizetan **29€ pertsonako**
Eskaintzaren azken eguna: abuztuak 31

BALDINTZAK: ERRESERBA EGIN BEHAR DA
Ezin zaie bertze eskaintza edo promozioei gehitu

ARANO

BESTAK → UZTAILAREN 18AN, ETA 23TIK 26RA

Pilota partida, herri kirolak eta puntako bertsolariak Santio Egunean

Jubilatuek astelehenarekin ospatuko dute beraien eguna

IGANDEA 18

Egun osoan, kotxe zaharren igoera eta erakusketa.

OSTIRALA 23

18:00etan Aranoko pala txapelketako finalak. **22:00etan** XXVIII. Mus Txapelketa San Roke Elkartean.

LARUNBATA 24

Umeen Eguna

11:00etan Meza. **12:00etan** Feria eta tortila lehiaketa. **15:30ean** puzgarriak eta umeen jolasak. **18:30ean** txokolatada. **19:00etan** Arno ganadutegiko aziendak umeentzat. **22:00etan** oilasko jatea. **00:30ean**

Tapia, Ostolaza eta Aitzolekin dantzaldia.

IGANDEA 25

Santio Eguna

11:00etan Meza. **12:30etan** Arano eta Goizuetaren arteko ohiko pilota partida. Aranotik Hui-zi-Legarreta eta Goizuetatik Apezetxea-Zabalera. **18:00etan** herri kirolak. Iparraldeko jokak eta Olasagasti eta Lopez aizkolariak. **19:30ean** bertsolariak: Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Julio Soto eta Iker Zubeldia. **Ondoren**, parrillada. **Gaua girotzeko** Elustondo anai-arrebak.

ASTELEHENA 26

San Joakin eta Santa Ana, Jubilatuen Eguna

11:00etan Meza. **12:00etan** hamaiketako. **Ondoren** pilota partidak haur eta jubenilen artean. Lehenengo partidari, Mujika-Apeze-



ARGAZKIAK: AINHOA ANSA

Festetako ekitaldi arrakastatsuenetako bat Feria izaten da.

txea, Altsua-Apezetxearen kontra. Bigarrenen, Lopez-Elorza, Lujan-

bio-Murgiondoren kontra. **14:00etan** jubilatuen bazkaria Imanol

Lazkano eta Joxe Agirre bertsolariekin. Eta Jexuxen jazbanarekin.



Aranoko Udalak
jai zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

Benta Berri jatetxea

Itxita larunbatetan egun osoa eta
astelehen arratsaldeetan
SUKALDARITZA TRADIZIONALA
T. 948 514 018 • Urumea • ARANO

ONDO PASA
JALAKI

Eginzazu TTAPI-TTAParen alde

proiektu zenbakia:
15.996

Zure laguntza eskertzeko,
baita edo hiru operari izanen dizut!

OSPAKIZUNAK → SANJUANAK

Sanjuanetako seinalea nabaritu da gurean ere

35 lagun bildu dira San Juan Eguneko sardina jatean

Ainhua ANSA

San Juan bezperan sua pizten da herri eta auzo askotan. Gizaldiz gizaldi, batetik bestera pasatutako ohiturak dira suaren ingurukoak. Eguzkiari eskainitakoak omen dira urteko gaueko motzenezan piztutako suak. Gorputza eta gorputza ez dena berri-tzeko pizten diren suak. Urtean izandako zor-te txarra sutara botatze-ko erabiltzen dituzte batzuk, ahaztu nahi dena ahazten laguntzeko beste batzuk...

Suaren gainetik salto eginez eta inguruan

dantza eginez herriko gaztetxoak ere ibili ziren herrian. Su txikia izan zen, herriak eta ume-txoek oraingoz eskatzen duten modukoa. Baina ez indar gutxiagokoa horregatik!

Suaren gainetik emandako saltoekin eta etxe atarietan jarritako lizar adarrekin, zorte ona izango al dute aranoa- rrek datorren sanjuanak bitarte!

SARDINA JATEA ARRAKASTATSUA

Ekainaren 25ean, 20:30 ingururako, parri-llak, ikatza eta gainera-koak martxan zeuden Kontseju aurrean. Ma-haiak eta aulkiak taber-natik atera, prestatu eta berehala sardina usaina zabaltzen hasi zen bazterretan.



ARGAZKIAK: AINHOA ANSA

Gustura egon ziren sardina jatera bildu ziren 35 bat lagunak Kontseju aurrean.

35 bat lagun elkartu-ko ziren sardina jatera eta patxada ederrean egoteko aukera izan zu-ten bertaratutakoek. Sardinak, sagardoa,

herriko gazta... dena bi-kaina eta musikaz giro-tutako tertulia gutxitan sortzen den bezalakoa. Kantuan aritu zenik ere izan zen! Erretiratzeko

ordua atzeratzen saia-tu zenik...

Eskerrik asko festa hau ospatzeko lan egin duten guztiei! Hurrengo urtean gehiago!

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**UDABERRI-UDAKO
KOLEKZIO BERRIA**

Iafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

BAZTAN

AZPIEGITURAK → MANIFESTAZIORAKO DEIA

'Baztan bizirik nahi dugu' eskatzeko manifestazioa egingen da uztailaren 17an Elizondon

Amaiurko herriak eta Aroztegia... eta gero zer? taldeak deitu dute

DATUA

19:00

ETAN
hasiko da manifestazioa
Elizondoko karriketan.

TTIPI-TTAPA

Baztan bizirik nahi dugu!, Herriaren hitza errespetatu! eta Munoa eta Aroztegia gelditu! Hiru lelo horiekin manifestazioa deitu dute Amaiurko herriak eta Aroztegia... eta gero zer? plataformak. Uztailaren 17an, larunbatarekin, izanen da, 19:00etan Elizondon.

'BAZTAN BIZIRIK NAHI DUGU!'

Deitzaileen irudiko, azken aldian Baztanen egiten ari diren egitasmoek «gure lurra, gure ingurua, gure biziak eta bizitzeko moduak aldatuko dituzte», eta «interese konomiko eta enpresarial konkretuek bulkaturik hel-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jon Elizetxe, Itziar Aleman eta Mikel Mujikak eman zuten manifestazioaren berri ekainaren 24an Arizkunenean egindako prentsurrekoan.

du dira». Alta, «guk Baztan bizirik nahi dugu. Baztanen bizi eta lan egin nahi dugu. Horretarako, sozialki beharrezkoak diren jarduerak eta kalitateko enpleguak sortuz».

'HERRIAREN HITZA ERRESPETATU!'

Amaiurko Munoa eta Lekarozko Aroztegiako «pelotazo urbanistikoa» herritarren eta lurraren kontrako egitasmoak direla adierazi dute deitzaileek: «Amaiurren, harrobi egitasmoaren kontrako herri-galdeketa, %94,5 aurka ager-

tu zen. Lekarozen, %67 Aroztegiako proiektu urbanistiko-espekulatzailearen kontra agertu zen. Non ikusi ote da herritarren iritzia gainera, administrazio publikoa, Udala, interes enpresarial konkretu batzuen eskutik ibiltzea?». Inposaketan gainera, herrien eta herritarren hitza errespetatzeko eskatu dute.

'MUNOA ETA AROZTEGIA GELDITU!'

Munoa, amaiurtarren erditsua bizi den inguruan, zundaketak baimendu izana ere leporatu die-

te Udalari, «ondotik, hain segur, harrobia egiteko». Tokiko jendearen gainera, Udalak «enpresa pribatu baten alde modu itsuan» jokatu duela kritikatuko dute eta horregatik, harrobietatik baserrietako distantzia egiteko ordenantza eskatu dute.

Aroztegian 252 etxebizitza berri egin nahi dituztela eta, «Baztango 16. herria» izanen litzatekeelakoan daude: «Baztango lurraldearen desegituraketa bulkatu bidena bar, gisa guztietako ondorio sozial eta ekonomikoak ekarriko ditu».

Eskisaroi
Jatetxea

Jaime Urrutia
Tfn: 948 580 013
ELIZONDO

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iruritz auzoa · Tfn: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxo!

Ordoki Industrialdea
Tfn: 948 453 403
31713 ARIZKUN

aroztegia 1890az geroztik

GARAJEKO ATE SEKZIONALAK

ATAKAK HESIAK
LANGAK BALKOIAK

Arotxa

Miguel Azcárraga
Kale Nagusia, 6 31730 Irurita
Tel. 948 581 418 / 650 532 073

marotxa@terra.es

OSPAKIZUNAK → UZTAILAREN 18AN ELIZONDON

Igande honetan zortzi egingen da Baztandarren Biltzarra besta haundia

Larunbatarekin
ez da
gaupasarik
eginen

TTIPI-TTAPA

Gutti gelditzen da baztandarren besta haundirako, astebete eta egun batzuk bertzerik ez. Uztailaren 18an, igandearekin, egingen da hain egun berezia den Baztandarren Biltzarra besta. Urtero bezala, Elizondoko karrikak jendez, musikaz eta kolorez beteko dira.

Aurtengoak, ordea, badu berezitasun bat: Elizondoko Foru Plaza-ko obrek azken momentura arte airean eduki baitute Baztandarren Biltzarra. Azkenean egin, egingen da, baina aldaketa batzuekin. 11:30ean hasiko den or-

ga apainduen desfilearen ondotik, 14:00etan Mutildantzak izanen dira Laxo plazan. 14:30ean herri-bazkaria egingen da Merkaturko zelaian eta ondotik, bazkalondoko jaialdia: bertsolariak, abeslariak, Muxikoak, Larraindantzak eta Trikidantz taldea. 20:00etatik aitzinera, Laxo plazako karpan dantzaldia eskainiko duena Laiotz taldea izanen da eta ondotik DJ-ak ariko dira. Igande osoan Baztandarren Biltzarra karpa Laxo frontoian irekia egonen da.

Aipatzekoa, bertalde, larunbatarekin ez dela gaupasarik egingen.

KARTELA

Juan Angel Perotxena elizondarrak egindako kartelak iragarriko du aurtengo Baztandarren



DATUA

11:00

ETAN

abiatuko da orga apainduen desfilea.

Biltzarra. Elizondoko plazako obrak tarteko, kartel lehiaketa antolatzeko ez du denborarik izan Baztandarren Biltzarra Elkartek eta horregatik, kartelaren diseinua enkarguz egin da. Antolakuntzatik bere lana eskuzabaltasun osoz egin duela azpimarratu nahi izan dute.



ARGAZKIA: BAZTANDARREN BILTZARRA ELKARTEA

Goiko argazkian, joan den urteko Zigako karroza. Behekoan, berriz, Baztandarren Biltzarra iragarriko duen kartela.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Sanjuanak eta San Pedro bestak ere joan dira

Eguraldi ederrarekin hasi zituzten Arizkunen sanjuanak. Ohi bezala, bestei hasiera eman orduko, gazteek 20 metro inguruko txopoa goratu zuten –argazkian–. Hortik aitzinerako lau eguneko bestak ere ederki joan ziren. Arizkunen ondotik, Erratzuk hartu zuen lekukoa. San Pedro bestak ere eguraldi ederrarekin ospatu zituzten.

BAZTAN

AZPIEGITURAK → GOBERNUAK TRAMITEAK HASI DITU

2012ko urtarrilerako hasiko dira Lekarozko enpresa kanpuseko jarduerak

10.452 metro
koadro hartuko
ditu eremuak

TTIPI-TTAPA

Lekarozko ikastetxe zaharraren eremuan, enpresa, hezkuntza edo kulturarekin zerikusia duten ekimenak bultzatzeko gunea egin nahi da, eta horretarako tramiteak hasi ditu Nafarroako Gobernuak. Amelia Salanueva kontseilaria buru

duen Lurralde Antolaketak Batzordeak (COT) udalez gairik inozentzia duen Plan Sektorial bat izendatu du.

Gunera sartzeko biribilgune bat egingen da, eta aparkaleku eta harrera egingen duen eraikin bat ere bai. Iparraldera, «hezkuntza herrixka» bat egingen da, 4.000 metro koadro hartuko dituen eta hezkuntza, zerbitzu eta aisialdialdira zuzendutako eraikin tikiak izanen dituen. Fraileen Putzua



UTZITAKO ARGAZKIA

2.000 euro gure dendetan gastatzeko

Elena Urtasun elizondarrak eraman du Bertan merkataria, zerbitzu eta ostalarien elkartean zozketatu duen 2.000 euroko balea. Diru hori gastatzeko aukera izan zuen ekainaren 19an, elkarteko komertzioetan eta «erraza» egin omen zitzaion gastatzea. Argazkian, ezkerretik eskuinera, Mari Joxe Alaña Bertaneko lehendakaria, Elena Urtasun saritua, Juanjo Leiza idazkaria eta Blanki Letona diruzaina.

berreskuratzeko lanak ere egingen dira. Garai bateko elizaren barrena kultur eremurako izanen da eta ondoan, zerbitzuen arloko jarduerak ekonomikoetarako gunea egingen

da. Baztan ibaira hurbiltzeko oinezkoendako ibilbidea eta lorategiak ere egokituko dira. Lurdesko Amabirjinaren leize ondoko kapera zaharra kendu eta balioanitzeko eki-

pamendurako bertze eraikin bat egingen da.

Plangintzaren arabera, 10.452 metro koadro hartuko dira, eta jarduerak 2012ko urtarrean hasiko direla aurreikusi da.

Lasao

• egurrezko altzaria

Lasao Ind. - 20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 • F. 943 15 10 98
informacion@lasao.com • www.lasao.com

Altzari bereziak, fabrikatik zuzenean, bitartekorik gabe



"Nafarroan estimatzen den altzaria"



Promociones
Lindutx Baztan, S.L.



Hargibel Eraikuntzak, S.L.

ARIZKUN

108.500etik hasita

*Zure etxea, zure bizitza
Tu casa, tu vida*

**URBANIZATUTAKO LUR EREMUEN
SALMENTA 500m²-tik hasita**

ITUREN

MALERREKA

ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification



Etxebizitza libreak eta VPO-ak iaister erakitzekoak, garaje eta lokalekin

Baztan Berri, 6 behea · 31700 Elizondo · T. 948 580 344
info@lindutx.com · www.lindutx.com

BAZTAN

IKUS-ENTZUNEZKOAK → LEKAROZKO ILZK ANTOLATUTA

Baztan, Bortziriak eta Urdazubi-Zugarramurdiko 15 lan aurkeztu dira labor topaketan

Parte hartu duten sei ikastetxetatik bi Baztangoak dira

TTIPI-TTAPA

Arras lan politak ikusi ahal izan dira Lekarozko ILZ edo Irakasle laguntza Zentroak antolatutako film labor eta argazki-istorio topaketan. Hala adierazi dute behintzat ekimenaren bultzatzaileek, «lanen maila haundia eta kalitatekoa» izan dela erranez.

Urdazubi-Zugarra-murdi, Baztan, Male-rreka eta Bortziritako ikastetxeei zuzendutako topaketa honetan sei ikastetxek hartu dute parte eta guztira 15 lan aurkeztu dira: Arantzako eskolak lau lan egin ditu; Arizkungo eskolak hiru; Oronozko ikastetxeok berte hiru; Berako Rikardo Baroja eskolako neska-mutikoen ere hiru eta Urdazubi-Zugarramurdikoek eta Lesakako Ira-

in eskolakoek bana.

Azkenengo topaketa ekainaren 16an egin zuten Elizondoko Arizkunenean eta orduan egin zuten sari banaketa ere. Opari bana eta lan guztiak biltzen zituzten bi DVD banatu zituzten Lekaroz ILZk.

Udako zinema

Hainbat film ikusteko aukera izanen da uda honetan ere Baztandarrren Biltzarrako gorapean, 22:00etan hasita. Ortzirral honetan, hilak 9, 13 urtetik gorakoendako *Sherlock Holmes* ikusteko aukera izanen da. Uztailaren 12an, berriaz, jende ororendako, *Nocturna* pelikula eskainiko da, euskaraz.

Uztailaren 14an, 7 urtetik gorakoendako, *Principe de Persia: las arenas del tiempo* filma ikusteko aukera izanen da. Abuztuaren 2an, *Que se mueran los feos* egonen da ikusgai 7 urtetik gorakoendako, eta abuztuaren 9an, azkenik, *Rompedientes* pelikula, jende ororendako.



ARGAZKIA: LEKAROZKO ILZ

Sari banaketa ekainaren 16an egin zen Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.



UTZITAKO ARGAZKIA

55 langile ditu Nafar Mendi merkatalguneak

Eskualdeko 55 lagun hasi dira Arraiozen zabaldu berri duten Nafar Mendi merkatalgunean lanean. 4,5 milioi euroko inbertsioa egin dute Elorga anaiek eta 20.000 artikulua baino gehiago eskainiko dira saltokian. Inaugurazio ekitaldia ekainaren 22an egin zen eta Miguel Sanz Nafarroako Gobernuo presidentea, Begoña Sanzberro Nafarroako Gobernuo Ingurumen eta Landa Garapeneko kontseilaria, Lander Santamaria udal zinegotzia eta Sotero Etxandi Arraiozko alkatea izan ziren ekitaldian. Hipermerkatuaren atarian, Berako Saverako langileek beraien egoeraren berri eman zioten Gobernuo presidenteari eta ordezkariari.

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

SOULE
hileta artea
Tfnea. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

BAZTAN

AZPIEGITURAK → FORU POLIZIARENA IZANEN DA

Komisaria berriko lanak udan hasiko direla iragarri du Nafarroako Gobernuak

Caballero
kontseilaria
Elizondon izan
da bisitan

TTIPI-TTAPA

Elizondon eraikitze-koa den komisaria berriko lanak uda honetan hasiko direlakoan dago Nafarroako Gobernuak. Halai iragarri zuen ekainaren 23an Javier Caballero Nafarroako Gobernuako lehen presidenteordea eta

presidentzia kontseilaria denak Elizondora egin-dako bisitan. Lerro hauek idazterakoan, proiektua lizitazio fasean zegoen, eta aste hauetan egitekoa zen adjudikazioa.

Nafarroako udaletxe nagusietako urdal ordezkariekin, segurtasunaz aritzeko eta Foru Poliziarren eta udaltzainen arteko koordinazioa eta segurtasun plana promozioa lantzeko bilerak egingen ibili da Gobernuako ordezkaria eta azkenekoa

Arizkunenea Kultur Etxean egin zen. Orduan egin zituen adierazpenok Caballero. Kontseilariarekin batera, Virginia Aleman alkatea, Santiago Aldako zinegotzia, Juan Fermin Mitxelena Lesakako alkatea eta Baztan-ko udaltzainak eta Bera eta Doneztebeko albin-teak izan ziren, baita Gobernuako eta Foru Poliziarren bertzeko ordezkariak ere, Iñaki Zia Elizondoko komisariako inspektore burua barne.



ARGAZKIA: ZALDUA

10 gazteren Sendotza Almandozen

Almandozen ere egin dute gazteek Sendotza. Argazkian ageri diren 10 neska-mutilek ekainaren 27arekin egin zuten: Jaione, Ismael, Pello, Eneko, Jacinto, Iñaki, Iñaki, Gorka, Joseba eta Argoitz izan ziren Sendotza egin zutenak.



ARGAZKIAK: MENA

Jaunartzeak Almandozen eta Berroetan

Almandozen, herriko bestetan egin zuen goiko argazkian ageri den bikoteak Lehen Jaunartzea, ekainaren 6an. Aitor eta Oihana izan ziren eguneko protagonistak. Ekainaren 13an, berriz, Berroetako Aneren txanda izan zen, eta berak egin zuen Jaunartzea. Argazkietan Ramon Apezetxea apaizarekin ageri dira.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

ACCIÓN 21 TÉCNICOS CONSULTORES S.L.
Kalitate eta Ingurugiroan Aholkularitza

Eraikitza sektoreko eta zerbitzu
empresetan adituak

acción21
técnicos consultores

Telefonoa: 620079105
E-posta: info@accion21.com
URDAZUBI

Dirulaguntzen deialdia zabalik!
KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMA: ISO 9001
INGURUGIROA KUDEATZEKO SISTEMA: ISO 14001

SARA

GIZARTEA → OMENALDIAK

Jesusa Saharreta eta Marie Dominica Berekoetxea familia handiko amak omendu dituzte

Bortz eta lau
haur hazi
dituzte,
hurrenez
hurren

Xan HARRIAGUE

Aurten ere Herriko Etxeak herritar batzuk omendu ditu familia handiak hazi dituzte-lako. Janbattit Laborde auzapezak merezimenduaren domina eman die Garateko Jesusa Saharretari eta Iturbideko Marie Dominika Berekoetxeari.

Bortz eta lau haur hazi baitituzte, hurrenez hurren.

86 urterekin Saharretak 32 iloba eta iloba txiki ditu, eta Berekoetxeak 9, 83 urterekin. Hainbeste ondorengoen artean jende aunitz bildu zen Herriko Etxean haien omenez egin zuten ekitaldian. Dominaz gain, ziurtagiria eta lore sorta ere eskuratu zuten Gartekoak eta Iturbidekoak, Annie Londaitz eta Monique Soudre hautetsien eskutik.



ARGAZKIA: JEAN POUYET

Jesusa Saharreta ezkerrean, Marie Dominika Berekoetxea erdian eta Janbattit Laborde eskuinean.

Kultur ekitaldiz betetako uztaila

Uda gainean dugu eta herriko bestak arte bertze itxura bat hartuko du gure herriak, kanpoko jende aunitz ibiliko baita han eta hemen. Hori dela eta Turismo Bulegoak eta herriko hainbat elkarte bestak, erakusketak eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte turistentzat, baina baita hemengo jendearentzat ere.

Igandean berean **artisauek eta gastronomiarik lehenbizikoa** egiten da, eta ondoko larunbatean **Zazpiak Bat dantza tal-**

deak urteko erronomia ospatuko du, uztailaren 17an, hain zuzen ere. Ondoko larunbate ere, uztailaren 24a, plakatik itzuli bat egiteko egun polita izanen da bertze behin **Pottokaren Eguna** gure herrian ospatuko baita. Biharamuean **kermeza** egiten da, igandearekin. Azkenik, uztailako azken larunbatean **errugbi taldearen erronomia** izanen da.

Horrez gain, baina gure kultura ezagutzen dutenentzat gehiago, **dantza, pilota, he-**

rri kirol eta kantu ikus-kizunak izanen dira astetartez. Berezitasun gisa, berriz, uztailaren 28an **Saguzarren gaua** ospatuko da leizeetan. Behaketa egiteaz gain, animali horiek ongi ezagutzen dituzten profesional batzuek azalpenak emanen dituzte haien bizi eta usaiei buruz.

Nabarmentzekoa da, azken urte hauetan bezala, **merkatua** izanen dela ostegun guziz herriko edo behintzat hurbileko eguneroko produktuekin: barazkiak, gasnak eta abar.

HERRIKO ETXEO
EDENTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Malan eta Véronique
SARA

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

MONTXO OSTATUA
Dantxarinetik 2 km-tara
TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • YRDAZVBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

VENTA PEIO
Bere (Administratzailea) 31.780 BERRA Tel 948 625 120 Fax 948 625 123
Bere (Administrazioa) 31.712 BERRA Tel 948 625 308 Fax 948 625 308
Bere (Administrazioa) 31.780 BERRA Tel 948 625 319 Fax 948 625 308
Lanaldia 31.840 BERRA Tel 948 625 314 Fax 948 625 308

BESTAK → AUZOKO BESTAK

Karrikako besten ondotik, orain Amotzeko bazterrak alaituko dira Madalenen karietarat

Uztailaren 14an
eta 16tik 17ra
ez da
animaziorik
falta izanen

Franck DOLOSOR

Jondoni Petrikari bestak bururatu dira eta aurten ere animazio ederrez gozatu ahal izan da bortz egunez. Aro iduzkitsua lagun, egun biziki atseginak ospatu dira. Igandeko herritarren bazkaria ederki alaitu zuten Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsulariek, eta ondotik Artxeluak senperrar gazteek osatzen duten kantari taldeak. Guk, Eltzegor eta Michel Labéguerie-ren zorbait kantu eskaini zituzten. Euskal kulturaz ongi gozatu eta, astelehenean saltsa eta capoiera doinuak nagusitu ziren karriketan giro gaitza sortuz oraingo eta lehenengo gazteen artean.

Besta komiteak nahi baino jende gutiago bildu bada ere, aitortu behar da herriko bestak gero eta atseginagoak direla.

**MAILA HAUNDIKO
MUSIKARIAK AMOTZEN**

Karrikako besten ondotik, Amotzeko gazteak ariko dira orain lanean... eta bestan, Madalenen kari. Uztailaren 14, 16, 17 eta 18an ez da animaziorik falta izanen Amotze auzoan.

Usaian bezala, lehen eguna Larraldea baserriaren inguruan ospatuko da mus eta pentaka zoingehiagoe-kin, herri bazkari batekin eta ahate-joko ikusgarriarekin. Pilota eta musika nagusituko dira ondoko egunetan, bertzeak bertze, Betagarri eta Larzenak taldeekin, eta Dominika eta Niko Etxart eta Pipas Larrandaburu; Brave, Bessonart eta Lascano kantariekin.

Besta ederrak hauek ere dudarik gabe gazterientzat. Ederak eta hunkigarriak, ainitzek gogoan izanen baitituzte Xabi Camino Togorat gana den amotzar gaztea eta Bixente Lopez gan den neguan Tolosan istripuz hil zen 19 urteko amotzarra.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Laugarren urtez segidan, bertsulariek alaitu dute Senpertainen bazkaria. Amets Arzallus Iparraldeko txapelduna eta Euskal Herriko txapeldunordeak eta Sustrai Colina Txapelketa Nagusiko finalistak Munduko koparen karietarat Frantziako futbol taldeak jasan zuen porrota eta politikarien gehiegikeriak salatu zituzten umore haundiarekin. Jean Michel Bereau izan zuten gai emaille. Hiruen artean saio atsegina proposatu zuten. Gauza ederra dudarik gabe galtzekotan ziren bertsuek tokia izatea bestetako egun nagusian. Matxin Irabola bertsulari haundia zena pozik egon liteke gazteak bertsutan entzutean bere sorterriko plazan! Beheko argazkian, berriaz, Senpereko kantariak ageri dira.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Antzerkia euskaraz

Aspaldiko partez, euskarazko antzerki haundia egin da berriki Lapurdin senperrak batzuen inguruan 1609an sorginen kontra egin ziren epaiketak eta jazarpena gogoratzeke. Peio Chipi senperrak eta Joseba Aurkenerena urruñarrak idatzi dute Iduzki Lore-ren testua eta Manex Fuchs antzerkilariak egokitu du idazlan hori taula gainean antzezteko gisan. Iduzki lore lan aberatsa da hiru belaunalditako 15 bat aktore biltzen baititu. Antzerki hunek aski ongi esplikatzeko du zer gertatu zen xuxen Lapurdin 1609an De Lancre epailea hunat etorri zelarik eta hamarnaka emazte erre zituelarik sorginak eta gaixtoak zirelakoan. Oren batez, errexi ikas daiteke zer gertatu zitzaizen gure arbasoeri. Egoera latzak, irudi bortitzak eta unore pixka bat nahasten ditu. Michel Brust hazpandar famatuak antzeztu zuen De Lancre beldurgarria, eta horren inguruan bildu dira Jean Michel Bereau, Christian Sene eta Michel Jorajuria senperrak. Iparralde osoan, 7 emanaldi eskaini dituzte eta orain nahi lukete hegoaldeko taulen gainean erakutsi antzezlanak.



**Iñaki Alzuyet
margoak**

Pintura dekoratiboa eta industrialak • Dekorazioak: estalak, belakurak
Foliosak • Semeak
Lakatuak eta barnizak
Hiri eta egure arnasaren gainean da
Tel.: 609 962 417 • Iñaki Alzuyet • Landibar Auzoa • 31711 URGAZUBI
pinturas.alzuyet@yahoo.es

EZKONTZAK

Xabier Altzuri Arretxea eta **Ainara Mindegia Baleztena**, Sunbillakoa eta Aurtizkoa, uztailaren 3an Aurtitzen.
Patxiku Bertiz Urroz eta **Nerea Etxeberria Petrirena**, Elgorriagakoak, maiatzaren 8an Elgorriagan.
Federic Sanchez eta **Laetitia Latxague**, ekainaren 19an Saran.
Jean Michel Elizalde eta **Josephine Etxegarai**, ekainaren 25ean Saran.
Patxi Manuel Jauregi eta **Marie Grillard**, ekainaren 26an Saran.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Oihan Salaberri Elizaintzin, Narbar-tekoa, ekainaren 25ean.
Ander Zelaieta Eulate, Donamaria-koa, ekainaren 13an.
Olatz Irazoki Telletxea, Lesakakoa, ekainaren 16an.
Julen Barranco Bonilla, Etxalarkoa, ekainaren 23an.
Joanes Bertiz Grajirena, Sunbillakoa, ekainaren 12an.
Manek Poirier Jorajuria, Sarakoa, ekainaren 15ean.
Nahia Brabant, Sarakoa, ekainaren 13an.
Narao Cubero Cacho, Elizondokoa, ekainaren 24an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Emiliana Nolasoyas Mutuberria, Goi-zuetakoa, ekainaren 10ean, 99 urte.
Karlos Elizalde Iturralde, Arizkungoa, ekainaren 17an, 84 urte.
Joxemiel Zabaleta Arribilaga, Leitza-koa, ekainaren 18an, 92 urte.
Matias Mariezkurrena Telletxea, Ez-kurrakoa, ekainaren 19an, 73 urte.
M^a Luisa Gainza Irigoien, Berakoa, ekainaren 22an, 94 urte.
Francisca Elizetxe Dufurrena, Erra-tzukoa, ekainaren 23an, 95 urte.
Martin Jose Tapia Sansiñena, Alkaia-gakoa, ekainaren 24an, 62 urte.
M^a Dolores Mindegia Otxandorena, Oronoz-Mugairikoa, ekainaren 24an, 48 urte.
Emilio Mendigutxia Etxeberria, Igan-tzikoa, ekainaren 25ean, 85 urte.
Gofeph Elizalde, Sarakoa, maiatzaren 30ean, 76 urte.



Grupo Tanatorio Taldea

IRACHE

Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera	948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA	
Doneztebe	948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA	
Elizondo	948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN TANATORIO BAZTANDARRA	
Leitza	948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA	
Lesaka	948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA	

HERRI KIROLAK → UZTAILAREN 8TIK 14RA

Ortzegun honetan hasiko dira Sanferminetako herri kirol txapelketak

Hainbat erakustaldi ere egingen dira

TTIPI-TTAPA | IRUÑA

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta, herri kirol saio andana-jokatuko dira ortzegun honetatik aitzinera Iruñeko Foru Plazan. Uztailaren 14ra arte, 12:00etatik 14:00etara izanen dira. Horietako aunitzetan, Nafarroako txapeldunak erabakiko dira, eta eskualdeko kirolariek ez dute hitzordura hutsik egingen.

UZTAILAK 8, ORTZEGUNA

-Nafarroako Harri-jasotze Txapelketa.
-Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa.
-Nafarroako Lasto Altxatze Txapelketa.

UZTAILAK 9, ORTZIRALA

-Nafarroako Arpana Txapelketak (lehen maila eta kadeteak).
-Joxe Bikondoaren erakustaldia.
-Aizkora erakustaldia.

UZTAILAK 10, LARUNBATA

-Nafarroako Ingude Altxatze Txapelketak (gi-

zon eta emakume).

-Lasto Altxatze erakustaldia.
-Lasto Botatze erakustaldia.
-Harri-jasotze erakustaldia (Perurenatarrak).
-Sokatira erakustaldia.

UZTAILAK 11, IGANDEA

-Nafarroako Bikotekako Aizkora Txapelketa (Nazabal eta Barberena; Larretxea eta Senosiain; Mindegia eta Lopez).
-Nafarroako Orga Joko Txapelketa.
-Nafarroako Txinga Eramate Txapelketak (gizon eta emakume).



Xanta Souza lesakarra txingekin Iruñeko Sanferminetan.

-Arpanlarien erakustaldia.

UZTAILAK 12, ASTELEHENA

-San Fermin Motozerra Saria.
-Harri-jasotze erakustaldia (Mikel Saralegi).
-Kimu mailakoen proba konbinatu erakustaldia.
-Haurrendako herri kirolak.

UZTAILAK 13, ASTEARTEA

-Kañamarek anaien era-

kustaldia (Zerratokia eta aitzurrarekin egurra mozte).

-Harri-jasotze erakustaldia (Aitor Oiarbide eta Idoia Etxeberria).
-Aizkora erakustaldia
-Emakumezkoen Aizkora Erakustaldia (Maika eta Izaskun Ariztegi).

UZTAILAK 14, ASTEAZKENA

-Motozerra erakustaldia
-Aizkora erakustaldia bikoteka.

PILOTA → TXARUTA PILOTA ELKARTEAK ANTOLATUTA

188 pilotarik parte hartu dute Josetxo Ezkurra Memorialean

Aurtengoa txapelketaren XX. edizioa izan da

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Josetxo Ezkuraren omenez, 20. urtez antolatutako pilota txapelketak eman du aurtengoa eta finalak ekainaren 20an jokatu ziren Donezteben. 188 pilotarik parte hartu dute Txaruta Pilota Elkarteak antolatutako lehia honetan, 26k

ttikien mailan, 38k umeetan, 38k kimuetan, 48 haurretan, kadeteetan 22k eta gazteetan 16k.

Ttikien mailan, Lesakako Asier Larralde eta Arizkungo Eki Larralde 18-14 irabazi zieten Berako Asier Telletxea eta Josetxo Sesei.

Umeen B mailan, Lesakako Josu Elizondo eta Jon Leizak 18-13 irabazi zieten Aimar Otxoteko eta Mikel Galarri herriarrei. **Umeak A mailan,** Goizuetarajoan zen txapela. Antton Ape-



ARGAZKIA: ZALDUA

Josetxo Ezkurra Memorialeko finalistak ekainaren 20an sariak banatu ondotik.

zetxea eta Aitor Aizkorrek 18-14 irabazi zieten Berako Mikel Elzaurdia eta Yago Kanterori.

Kimuen B mailan, Lazkaorajoan zen garai-pena. Elizondoko Ander Zelaieta eta Aritz Merinok 18-6 galdu zuten. **Kimuen A mailan,** Oronozko Enaitz Antsok eta Sunbillako Iker Espelosinek 18-11 garaitu zuten Burlatako bikotea.

Haurren B mailan, Berako bi bikote aritu ziren. Baina garai-pena, Andoni Lazkanotegi eta Eñaut Larratxerentzat izan zen, 18-10 irabazi baitzieten Julen Palenzuela eta Xabier Mendiari. **Haurren A mailan,** Narbarteko David Albiasuk eta Uharteko Aritz Goñik 18-5 irabazi zuten Tafalla eta Donibaneko bikotearen aurka.

Kadeteetan, Elizondoko Dario Trantxe eta Igoako Beñat Alberro ateraziren txapeldun. 18-10eko markagailuarekin utzi zituzten Arkaitz Untxalo iturendarra eta Iban Inda amaiurtarra.

Eguneko azken partidari, **gazteen mailan,** Oronozko Joseba Arizmendi eta Andoaingo Ulangak 22-9 irabazi zioten Usurbilgo bikoteari.

15 urterekin hasi zen autoen munduan Andoni Blas. Eta 18 urterekin, gida-baimena atera orduko, rallyetan hasi zen. Geroztik hainbat lasterketetan parte hartu du:

Etxalarko Usategietako Igoeran, Lesakako ralliesprint-ean, Jaizkibelen, Lekunberrin, Azpeitian... Berriki Los Arcosen zabaldu duten zirkuitu berriaren inaugurazioan parte

hartzeko aukera ere eduki du. Peugeot 106 autoarekin dabil denboraldi honetan, batzuetan Esteban Sarratea iruritarra eta bertzeetan Ainhoa arreba kopilotu dituela.

Andoni BLAS | Doneztebeko auto-gidaria

«Zaila da, baina autoen mundu honetatik bizi nahiko nuke»

G. PIKABEA | DONEZTEBE

Ez zuen oraindik gida-baimenik, 15 urtebertzerik ez zituelako, baina ordurako hasia zen autoei begia botatzen Andoni Blas (Doneztebe, 1987). Lagunak autoekin ikusiz sartu zen bera ere autoen munduan, «txirrinta» sentitu zuelako. Hala, 18 urte bete ordurako, gida-baimena atera eta lasterketetarako erabili zuen bere lehenbiziko autoa erosi zuen: Citroen AX-a. Aitortu digunez, etxekoek ez zuten sobera gustura hartu bere erabakia, baina berak aitzinera egin zuen: «hasieran erotu nintzela erraten zidaten etxean, eta beldurtu egiten ziren. Baina ongi moldatzen naitzela ikusi zutenetik ez dute deus ere erraten».

Hasierako Citroen AX-aren ondotik, Citroen Saxo bat eduki zuen aitzineko denboraldian, eta aurtun Peugeot 106 batekin dabil. Normalean asfaltoan ibiltzen dela adierazi digu Blasek, baina «lur gaineko auto bat prestatzeko pentsamendua ere badut, baina momentuz pentsamendua baino ez da», dio.

Asfalto gainean behintzat, ongi moldatzen dela erakusten ari da denboraldi honetan. Txapelketa akitzeko hiru lasterketa falta direnean, lehenbizikoa da Peugeot Kopan, «bigarrenarekiko



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Andoni Blas Doneztebeko auto-gidaria, Ainhoa arrebarekin.

abantaila dezentearekin». Hankook Kopan ere badabil doneztebarrari, eta lau lasterketaren faltan, laugarrena da. Denadene, 18 urte zituela eskuratu zuen bere lehenbizikogarapena: «junior mailan, mendiko eta rallyetako txapeldun izan nintzen. Eta aurtun ere horretarako puntuak lortzen ari naiz», azaldu digu.

Rallyak eta igoerak, bietatik probatu du gazteak, baina rallyak nahia go omen ditu: «kopilotuarekin joaten naitzela». Kopilotu ere aritua bada

ETXEKOEN BELDURRA
«Hasieran erotu nintzela erraten zidaten etxean, eta beldurtu egiten ziren. Baina ongi moldatzen naitzela ikusi zutenetik ez dute deus ere erraten»

ere, gidatzea gehiago gustatzen omen zaio doneztebarrari, «politagoa da», erran digu. Eta gidari dela, Iruritako Esteban Sarratea izaten du kopilotua. Halere, azken lasterketetan Ainhoa arreba eduki du ondoan: «gazte-gaztetatik dator kio afizioa, eta aunitz gustatzen zaio». Arreba ondoan izateak «konfidantza» ematen digu Blasek: «anai-arrebak gara eta...». Baina iruritararekin ere hasieratik dabil, eta honek ere konfidantza ematen

omen dio.

Eta autoreen bat aukeratzeko eskatuta, sobera pentsatu gabe erantzun digu: «Kit Car, Super 1.600 edo horrelakoren bat». Lasterketarik gustukoena, berriz, «Lesakako ralliesprinta».

Kirola eta afizioa dira rallyak Blasentzat, eta afizio garestia aukeratu duen arren, gustuko tokian maldarik ez: «horrelakoak bizian behin egin behar dira, eta orain ez badugu egiten gero ez dugu eginen», dio Blasek. Garestia da bai, urtean milioi-miloi eta erdi artean gastatzera ailega baitaiteke. Eta horretarako, babesleak ere ezinbertzekoak izaten dira: «inguruko lantegi, ostatu eta dendetan dezent mugitzen gara. Baina orain krisiaren eragina nabaritzen da».

Bere garaian, rallyak betirako alde batera uztea ere pentsatu zuen doneztebarrak, eta autoa ere saldu zuen. Baina gauza bat benetan gustukoa denean, uztea zaila: «berriz ere gogoazartu eta bertze auto bat erosi nuen». Momentuz behintzat, ez du uzteko asmorik, eta denboraldia kolperik eman gabe eta ahalik eta hobekien akitzea da aurtengo bere helburua. Ametsa, berriz, hauxe: «zaila da, baina autoen mundu honetatik bizi nahiko nuke».

HERRI KIROLAK → SEI MODALITATETAN

Hiru garaipen eskuratu dituzte zonaldeko kirolariek Iparraldeko Torneoan

Aniz, Bortziriak, Leitza eta Iturengo bederatz kirolarik parte hartu dute

TTIPI-TTAPA

Hiru jardunaldi jokatu ondotik, ekainaren 27an bukatu zen Iparraldeko Joku Torneoa. Sei herri kirol modalitatean aritu dira kirolariak, tartean, eskualdekoak andana, eta sari gehienek ere hemen bukatu dute.

Txokor biltzen, Fernando Etxegarai berrak bigarren postua



ARGAZKIA: WWW.LAINDURAIN.COM

Joetxo Urrutia leitzarra izan da harri-altxatzen txapeldun. Ez, ordea, argazkiko harriarekin, hori 163 kiloko harri zaharra baita.

eskuratu du; Patxi Iratzoki igantziarra hirugarren izan da eta Unai Iantzi aniztarra bosga-

rren.

Ingude altxatzen, berriz, hiru jardualdietako jasoaldiak batuta,

Joakin Aioroa iturendarra izan da nagusi; Xabi Sein igantziarra bigarren izan da eta ho-

nen lehengusu eta herritarra den Karlos Sein hirugarren.

Harri-altxatzen, Leitza joan den lehenbizi postua. Joetxo Urrutiak irabazi du; eta Xabier Ariztegi etxalararra, berriz, hirugarren gelditu da.

Lasto altxatzen, hiru igantziarren arteko lehiaren ondotik, Xabi Sein eskuratu du txapelak; bigarren Iñaki Bereau izan da eta hirugarren Karlos Sein.

Txinga-eramaten, azkenik, Joetxo Urrutia bigarren gelditu da.

Eskualdeko kirolariek parte hartu ez duten modalitatea zaku-lasterketa izan da.

KAMIOIAK → TRUCK NAVARRA TALDEA

Uztailaren 23tik 25erako asteburuan Alemanian ariko da Mariezkurrena

Europako sailkapenean 10.a da Doneztebekoa

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Denboraldi ona egingen ari da Jabier Mariezkurrena Doneztebeko kamioi-gidaria. Momentuz, Europako Txapelketan, sailkapenean hamargarrena da Truck Navarra Competicion taldeko gidaria, eta hurrengo hitzordua Alemanian izanen du, Nürburg-en. Uztailaren 23, 24 eta

25ean jokatuko da. Azkeneko saioa, berriz, etxetik hurbil, Frantzia egin zuen, Nogaroko Sari Nagusian. Asteburu gazi-gozoa izan zen.

Larunbateko sailkapen probetan, zortzigarren postua lortu zuen Mariezkurrena, orain arteko sailkapenik onena errepikatuz. Lehenbiziko lasterketan ere itxura onarekin hasi zen, baina zenbait gorabehera tarteke, hamabortzgarren. akitu zuen. Bigarren lasterketa ere ez zen sobe- ra ongi joan: ateratzera koan tronpoa egin eta

azkena gelditu baitzen, buelta erdi gibeletik. 16. posturaino aitzineratzea lortu zuen, baina hortxe gelditu zen. Denboraldiko probarik kaxkarrenak izan ziren, punturik gabe eta akats aunitzekin.

Igandeko sailkapen proban, ordea, zazpigarren postua lortu zuen doneztebarrak, superpulerako sailkatuz eta hemen hamargarren. izan zen. Asteburuko hirugarren karreran, bederatzigarren postua lortu zuen. Eta asteburuko laugarren lasterketan, Truck Navarra Compe-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mariezkurrena kamioi-gidaria.

ticion taldeak laugarren postua lortu zuen Nogaroko Sari Nagusian,

orain arte Europako Txapelketan inoiz lortutako sailkapenik onena.

uztailak 08-21

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Erakusketak




ELIZONDO | 2010.07.22/08.29

Clara Santamariaren Artearen Ibilbidea erakusketa

Elizondoko margolariak olio eta akuarela lanak biltzen dituen Artearen Ibilbidea erakusketa egingen du Santiago karrikako Kattalinenean.

Zinema



ELIZONDO | 2010.07.12-14

Zinema euskaraz eta kanpoan Merkatuko Plazan

Udako Zinema zikloaren barrenean, heldu den astelehenean *Nocturna* filma ikusgai izanen da Merkatuko Plazan eta asteazkenean *Príncipe de Persia*.

Bestak



ELIZONDO | 2010.06.23-28

Mutildantzak eta hainbat ekitaldi Santio bestetan

Aranon eta Elgorriagan bezalaxe, Elizondon Santiago bestak ospatuko dituzte. Iturenen ere herriko bestak ospatuko dituzte datorren astean.

ttokaren Eguna plazan.

Bestak

ARANO

Santiago festak

Uztailaren 23tik 26ra
Santio bestak.

ELGORRIAGA

Santiago bestak

Uztailaren 23tik 26ra
Santio bestak.

ELIZONDO

Santiago bestak

Uztailaren 23tik 26ra
Santio bestak.

ITUREN

Herriko bestak

Uztailaren 16tik 19ra
herriko bestak.

SENPERE

Amotzeko bestak

Uztailaren 14an, eta 16tik 18ra Madalenak .

LESAKA

San Fermin bestak

Uztailaren 2tik 11ra
Sanferminak.

Zialdoko bestak

Uztailaren 16tik 18ra
ra.

AZPILKUETA

San Fermin bestak

Uztailaren 6tik 10era
Sanferminak.

Tailerrak

ELIZONDO

Javier Zigaren omenez haurrendako tailerra

Ekainaren 29tik uztailaren 9ra asteartetik ortziralerara Baztango Museo Etnografikoan.

Lehiaketak

LESAKA

Beti Gazte elkartearen Argazki lehiaketa

Urriaren 30a arte
aurkezten ahal dira

Erakusketak

ELIZONDO

‘Enredando sombras’ erakusketa

Ekainaren 25etik uztailaren 17ra Diana Iniestaren *Enredando sombras* margo, marrazki eta argazki erakusketa Arizkunenean.

Xabier Morrás-en erakusketa

Ekainaren 26tik abuztuaren 28ra Xabier Morrásen pintura erakusketa ikusgai izanen da Arizkunenea Kultur Etxean.

‘Artearen Ibilbidea’ erakusketa

Uztailaren 22tik abuztuaren 29ra Clara Santamariaren *Artearen Ibilbidea* margo erakusketa zabalduko du Clara Santamariak Santiago karrikako Kattalinenean. Olio eta akuarela lanak izanen dira ikusgai.

‘Piedras en el paisaje’ erakusketa

Uztailaren 22tik abuztuaren 29ra Tomas Sobrinoren *Piedras en el paisaje*

margo erakusketa zabalik Arizkunenea Kultur Etxean.

ARIZKUN

Teresa Lafraguaren margo erakusketa

Uztailaren 8tik 31ra Teresa Lafraguaren margo erakusketa ikusgai izanen da Santxotena Parke-Museoan.

SENPERE

Rosa Valverderen margo erakusketa

Uztailaren 9tik 31ra

Amotz auzoko Larraldean, Rosa Valverderen margo erakusketa.

URDAZUBI

Euskal pinturaren 50 urte erakusketa

2011ko urtarrilaren 2ra arte Urdazubiko monastegiko klaustroan gaur egungo euskal margolari eta eskultore garrantzitsuenen 300 artelan ikusgai. Asteazkenetik ortziralerara 14:00etatik 18:30era. Larunbat, igande, besta eta opor egunetan 11:00etatik 19:00etara.

Ospakizunak

ELIZONDO

Baztandarren Biltzarra

Uztailaren 18an Baztango herrien elkartasun besta.

ARANO

Kotxe zaharren erakusketa

Uztailaren 18an kotxe zaharren igoera eta erakusketa egun osoan.

SARA

Pottokaren Eguna

Uztailaren 24an Po-

PROPOSAMENA

ELIZONDO

Baztandarren Biltzarra uztailaren 18an

11:30ean hasiko den orga apainduen desfilearen ondotik 14:00etan Mutildantzak izanen dira Laxoa plazan. 14:30ean herri bazkari egingen da Merkatuko zelaian eta ondotik bazkalondoko jaialdia. Arratsean, Laiotz taldearekin dantzaldia izanen da Laxoa plazan eta DJa ariko da. Aurten ez da gaupasarik izanen larunbatean.



Beti Gazte elkarteak 70. urteurrena dela eta antolatu duen argazki lehiaketarako lanak. Kirola, mendia eta naturarekin zerikusia duen argazkiak.

LEITZA

Korto lehiaketa Atekabeltzan

Uztailaren 16a arte aurkezten ahal dira Atekabeltza Gaztetxeak lehen aldiz antolatu duen korto lehiaketarako lanak.

Ekitaldiak

ELIZONDO

'Baztan bizirik nahi dugu' manifestazioa

Uztailaren 17an *Baztan bizirik nahi dugu!* Herriaren hitza errespetatu, Munoa eta Aroztegia gelditu! izenburupean manifestazioa deitu dute Amairuko herriak eta Aroztegia... eta gero zer? plataformak.

Zinema

ELIZONDO

Udako zinema

Uztailaren 9an *Sherlock Holmes*.

Uztailaren 12an *Nocturna, Abentura magiko bat*.

Uztailaren 14an *Príncipe de Persia: las arenas del tiempo*. Emanaldiak 22:00etan Merkatu Plazan.

NARBARTE

Zinema herrikoia

Uztailaren 13an Maierrekako Gazte Asanbladak antolatutako zinema herrikoaren barne, *Itsasoaren alaba* filma ikusgai 21:00etan NARBARTEKO plazan.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Goizuetan
bada gizon bat

PATZIKU PERURENA

Alberdania, 2010

Mikel Laboak ezagun egin zuen *Goizuetan* edo *Trabukoren kanta* bezala ezaguna den abesti herrikoia. Kantaren letrak badu halako misterio ukitu bat, entzulearen jakin-mina pizten duena. Nork idatzi zuen letra triste hura? Nor ote zen Trabuko? Entzuleek hameka aldiz egin dituzten galdera horiei erantzuna ematen saiatu da Patziku Perurena *Goizuetan bada gizon bat*. *Trabukoren kantako misterioak* liburuan. Alberdaniak argitaratu berri du Goizuetako idazleak urtetan egindako ikerketa lanaren emaitza. «Zinezko gertaera batzuk» kontatzen ditu Trabukoren kantak, Perurenak aurkezpenean aditzera eman zuenez. Kantuaren egilea Joseph Echagarai izan zen, ingurukoek Berdabio ezizenez ezagutzen zutena. Ikerlariak azaldu zuenez, XVIII. mendean diru faltsua egiteagatik kartzelaratu izan zen eta, antza denez, zigorraren ondoren osatu zituen bertsoak, Trabukoren gaiztakeriak ezagutzera emateko. XVIII. mendean gure inguruan nola bizi ziren ezagutzeko aukera ere ematen du.

Musika



Amarauak

XARMA

Promomusika, 2010

2007aren bukaeran hasi zen Xarma taldea sortzeko ideia. Keike taldearen azken garaia zen hura eta Jon Kirru Iparragirrek eta Itsaso Gutierrezek buruan zuten beraiek abestiak aitzinera ateratzeko proiektu berri bat martxan jartzea. 2008an maketa bat grabatuta Ondarruko Santos estudioetan eta Christian Martin baxuarekin eta Joshua Froufe bateriarekin taldea guztiz osatu eta gero, Bilbovisión lehiaketan hirugarren saria eraman zuten. Hemendik aitzinera kontzertuak ematen hasi ziren. Euskal Herrian hasi zuten bira tiki bat 2009an Alemanian bukatu zutena. Uda horretan Tolosako Bonberenea estudioan lehen diskoa grabatzen hasi ziren Karlos Osinagaren gidaritzapean. Emaizta *Amarauak* izeneko diska izan da. Rocka oinarri duten ñabardura anitzeko 12 abestietan rocka ezezik metal eta pop zertzeladak ere aurkitu daitezke, gai intimistak zein kritika sozial eta politikoa zorrotza egiten duten hitzak oinarri dituztela.

Internet




Abentura handiak
bidaiari txikientzako

TOKITAN.TV

Tokitlan.tv bidaien inguruko web telebista bat. Bertan, Haritz Rodriguez kazetari eta blogariak «denon eskura dauden abenturak» kontatuko ditu. Batzuetan helmuga exotikoagoetan egindako iraupen luzeagoko bidaiak dira, eta bestetan etxetik gertuago egiten diren txangoak. Bertzeak bertze, Itsaso Joniarrereko uharte greziarretan barrena belaontziz egindako odisea txikia, 3.000 metroko mendiak Piriniotan, urpekaritza Gatak Lurmuturrean, errepide bidezko bidaiak Marokon, surfa Lapurdin, bizikleta bidezko ibilbideak... ikusi ahal izango dira bideo hauetan. Webgune berria dagoeneko abian da, eta lehenengo kapitulua ikusgai dago: Oreinen ugalketa errituala edo «berrea» Sorian. Orotara 32 kapitulu grabatu eta editatu dira dagoeneko lehenengo denboraldiari begira. Datozen hilabeteotan argitaratuko dira webgunean, astean behin.

Nire aukera



Iera AGIRRE
Leitzako palista

«Kirola egiteko eta lagunekin egoteko aprobetxatzen dut asti libre»

Palan aritzeagatik ezagun da Iera Agirre leitzarra, baina lanbidez Lekunberriko Haur Eskolako irakaslea da. Izan ere, palan afizioz eta denborapasa hasi bazen ere, «orain beste lan bat dela esango nuke». Astia duenean, ia egunero saiatzen da kirolen bat egiten: «eguraldi onarekin bizikletan ibiltzea gustatzen zait. Honez gain, astia duenean lagunekin egoteko aprobetxatzen dut». Astebururako plana «goizean mendira bueltatxo bat emanez, arratsaldean pilota partida eder bat ikusiz eta iluntzean lagunekin afari on baten ondoren juerga eginez» osatuko luke lerak. Zinera joatea ere dextente gustatzen zaio baita «ordenagailuarekin saltseatzea ere». Oporretan, ahal duenean kanpora joaten da, «herrialde eta kultura ezberdinak ezagutzea asko gustatzen zait». Gogoan dituen oporraldiak, berriz, «orain dela urte batzuk pala txapelketa bat zela eta Venezuelan bizi izandakoa eta iaz Grezian egindakoa» azpimarratu ditu.

ETXEBIZITZAK
salgai

DONEZTEBE. Eguzkie-der kalean -tailer ingu-rua-, 2. eskuko kalefak- ziodun pisua salgai. 3 loge- la, bainugela, egonge- la eta trastelekua. 27.000.000 pezeta (163.000 euro). Garajea aukeran. **650 264156.**

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurra- rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. 80 m²ko pisua sal- gai. 3 gela, bainugela, su- kaldea, egongela eta tras- telekua. Berritua. Gas na- turala eta berogailua. **657 715243.**

ETXALAR. Lizaietako parajea zaharberritze- ko borda salgai, lur ere- muarekin. **661 121540.**

LEGASA. 90 m²ko pisua salgai. 3 logela, bainuge- la, egongela eta suka- ldea. 3 balkoi. Berritua. Prezio negoziagarria. **650 729639.**

ERATSUN. 3 borda sal- gai, lur eremuarekin. **943 217817.**

ELIZONDO. Erlategi Pla- zan pisua salgai. 3 loge- la, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Traste- lekua eta garaje plazare- kin. **646 144895.**

DONEZTEBE. Zazpigu- rutze plazan 115 m²ko pi- sua salgai. 3 logela, 2 bai-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **3008 0080 53 0703304626** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

nugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreina- tu gabea. **630 948271.**

ERRATZU. Etxebizitza salgai. **944 572184/652 779210.**

IRUN. Colon aparkaleku- tik hurbil etxebizitza sal- gai. Bikote gazteentzat egokia. 180.000 euro (ga- rai bateko 30 milioi pe- zeta). **637 559152.**

DONEZTEBE. Rosa Se- minarion, 3. solairuan da- goen pisua salgai. Eskai- lera batzuen bidez, tras- telekura komunikatua da- go. 3 logela eta 2 komun. Dena mobleztatua. **679 109423.**

ETXEBIZITZAK
errentan eman

ELIZONDO. Braulio Iriar- te Karrikan, pisua erren- tan emateko. 3 logela eta berogailuarekin. **676 707620.**

LESAKA. Bi lagunentza- ko apartamentua erren- tan emateko. Mobleztatua. **675 714360.**

ETXEBIZITZAK
errentan hartu

Baserri bat errentan har- tu nahi da, lur eremu tti- ki batekin, baratze gisa erabiltzeko eta animaliak edukitzeko. **647 023232.**

MALERREKA EDO INGURUAN. Familia ba- tek baserria edo etxea errentan hartuko luke. **617 543034.**

LURRAK/ORUBEAK
denetarik

ALMANDOZ ALDEAN. 60.000 m²ko belagia do- hainik eskaintzen da ar- diak bazkatzeko eta on- doan baserri bat dago ar- diak gordetzeko. Hortik hurbil, 6.000 m²ko ber-

tze lur eremu bat ere do- hainik eskaintzen da ar- diak bazkatzeko, borda batekin. **686 983377.**

LANA
eskaintzak

Emakume bat edozein lanetan ariko litzateke. Adineko pertsonak zain- tzen edo etxeko lanak egiten, edota ostatu ba- tean garbitasunean. Es- perientziaduna. **687 335413.**

Gizon bat lanean ariko litzateke. Ahal dela Bor- tzirietan. **616 759859.**

Ama euskaldun bat arratsaldez garbiketan edo berte edozein lane- tan ariko litzateke. Ahal dela Bortzirietan. **650 407978.**

Emakume bat jostun- gintzan, haurrak zaintzen edo etxeak garbitzen ari- ko litzake. **618 916559.**

LANA
eskariak

ZUGARRAMURDI. Ja- tetxe batean sukaldaria behar da urte osorako. **0033 559 542131.**

Eskualdean aritzeko es- perientziadun **zurgina** behar da. **607 890923.**

Promotorea behar da, autoarekin eta frantsesa dakiena (erdi maila). Mu- gan lan egiteko, abuztu- ra arte. Kontratua, sol- data eta kilometrojea. Bi- dali curriculum: *em- pleo@congrebas.com.*

MOTORRAK
salgai

Mercedes c220cdi, 150 CV sport coupe salgai, 2006koa, 75.000km. Iru- ñeko Mercedes etxean eresia eta errebisio guz- tiak bertan eginak. Egoe- ra ezin hobean. **699 122815 / 600 699266.**



Golf TDI salgai, egoera onean. **650 064912.**

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(ekainaren 4tik 11ra bitarteko prezioak)



Zerrikumea
(19 kilo): 42,00 € (=)

Zerri gizena
1,238 € kiloa. (+0,033)

Zerramak:
0,440€ Kg/bizirik. (+0,020)



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,80 (-0,01)
1.koa 3,49 (=)
2.koa 2,96 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 3,87 (-0,01)
1.koa 3,60 (=)
2.koa 3,13 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen du- ten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,70/2,80
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,70/6,40
8-10 kilokoak: 4,60/4,90

Fiat grande punto 1.9 diesela salgai. 130 zaldi, 17ko llantak. MP3a, esku librekoa, klima bizona, 63.000 km. Errebisio guztiak Fiat-en eginak. Ongi zaindua. ☎628 287016.



Lada Niva salgai. ☎678 957094.

Nissan note 1.4 autoa salgai. Erdiberrira. 38.000 km. ABS, A/C. Prezioa: 7.000 euro. ☎629 656542.

Renault Master etxebizitza furgoneta salgai (2007). Bidaiatzeko 6 plaza (homologatua). 2 ohe (4 lagunek lo egiteko). Ur edangarri eta zikinerako andelak. Arroparako armairu bikoitza. Jateko mahai plegatua. 12 V argiztapen-sutako sukaldea, fre-gadera eta armairuak. 90 litroko hozkailua. Kopilotoren eserleku birakaria. 12 V eta 145 A bateria auxiliarra. Kotxearen alternadorearekin eta kanpoko tomarekin. Gasaren instalazioa: sukalderako eta ur berorako. Zentralita elektronikoa. Ur berogailua. Berogailua. Kortina isotermikoak. 2 klaraboia. Komuna: WC, dutxa, kortinak,

ispilua eta armairuak. 43.000 km. 35.000 euro. ☎655725252/edume.arrieta@euskalnet.net.



MOTORRAK tailerrak

GANIX
TAILERRA
Ibilgailuen mekanika eta elektrizitatea
BERA FIAT zerbitzua
Burlandeta, 9 - Tel: 948 630 667

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE
SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ZERBITZUAK Psikologoak

Nirtenbide
PSIKOLOGIA
KONTSULTA PRIBATUA
608 049 643

ZERBITZUAK Zurginak

ARANTZA
Zurgindegia.....
• Klase guzietako zurgin lanak
• Eskatu errekontuak konpromisorik gabe
Jose Miguel Garmendia
Tel: 948 434 948 - 447 870 144
Gernika - ARANTZA

ANIMALIAK oparitu

BERA. Zakurkumeak oparitzeko. Atta alemaniar artzain-zakur nahas-keta eta ama Border-collie arrazakoa. ☎696 721575.

Hilabete bateko **hiru katakume** oparitzeko. ☎618 188300.

ANIMALIAK salerosketak

Urte bat eta erdiko **akerra** salgai. ☎679 892622.

Txerri vietnamitak salgai, urte eta erdikoak. Emea abuztu aldera umatuko da. Biak 150 eurotan, eta arra bakarrik 50 eurotan. ☎645 013213.

Setter ingeles arrazako **zakurkumeak** salgai. Nahi bada pedigriarekin. ☎670 251632.

Erbi eta basurdeetarako **zakurkumea** salgai. Arraza garbikoa, xuria eta paperekin. Atta eta ama

DONEZTEBEKO AVIA GASOLINDEGIA
Leitzako Errepidea | DONEZTEBE | T 948 451 679 | www.doneztebe.com
Murgildu udan Club Aviarekin
IRABAZI 25 Scooter

ere ikusteko aukera. ☎619 285919.

Golden Retriever arrazako zakurkume txuriak salgai. Abuztu bukaeran biltzeko. ☎663 708615.

DENETARIK salerosketak

Behien **txuleta zintak** eta **solomilloak** salgai. Oso haragi ona eta prezio onean. ☎659 751411.

1,90 metroko luzera duten **arkazi piketeak** salgai. ☎948 634120.

Kanpin karroa salgai. Imaz-Puma 3 markakoa. Egoera onean, gutxi erabilia. Bi logela (1,35ko zabalerakoak) eta beste bat (1,20koa) logela/jantokia izan daitekeena, mahaia eta bankuekin. Lau pertsona eroso

egoteko modua. Aurreko gela bat ere (abantzea) lortzen ahal zaio (3,90x1,20). Muntatzeko erraza. Karroa fibrazkoa. 550 euro. ☎635 477949.

Neska gazteak baratzean aritzeko gogoarekin **erreminta bila** dabilta. Sobran badituzu eta birziklatzeko intentzioarekin bazabiltza, deitu zenbaki hauetako batera. ☎652 708901 edo 667 218632.

Surako **haritz egurra** salgai. Kamioian etxera eramaten da. ☎676 264212.

Bulegoko **mahai eta aulkiak** salgai. ☎948 627644.

Belar idorren boloak salgai. ☎660 393436.

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, **TELEFONO GIDA** honetan aurkituko dituzu inguruotako telefono guztiak: ofizialeak, komertzioak, lantegi eta zerbitzuak, partikularren telefonoak... Denak, informazio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko errexago antolatua.

Laiister
ttipi-ttapa aldizkariarekin
batera **TELEFONO GIDA 2010**

TELEFONO GIDA 2010
BATAK BATAK DUTEN GUTUAK
GUTUAK BATAK BATAK
ttipi-ttapa

RING RING RING

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



ALAZNE PEREIRA CORTIZOK urtea bete du uztailaren 6an. Zorionak eta muxu haundi bat printzesa ama eta familiaren partetik.



Igantzikoa AINHOA eta bere alaba ALAINEK uztailaren 10ean urteak eta uztailaren 22an urtea beteko dituzte. Zorionak Sunbilla eta Igantzikoa familiaren partetik. Zu zara gure txantxangorri politta!



Zubietako ARITZ-ek beste urte bat beteko du uztailaren 10ean. 5 mu-xu haundi gure kukuxuari ama-ma, aita, ama eta Urkiren partetik. Zorionak Spidey!



Zubietako MIKELE ETXEKOLONEAK 10 urte bete zituen apirilean, eta MALENEK 5 urte egingen ditu uztailaren 15ean. MIKELEREN merendolan tarta goxoa jan genuen, ea MALENEK ere hura bezain tentagarria prestatzen duen! Zorionak! A! Elkar besarkatuta bai politak biak, borrokan baino pus-kaz politagoak! Atta, ama, Beñat, amabix, amona eta familia guztia.



Zuek bai piratak zuek!! Zorionak bikote eta oso, oso ongi pasa! Merendolan, halere, ron botila beharrean, txokolate gozoa hartuko dugu, e? 5 muxu haundi etxeko guztion partetik! Pirata ausartak eta beldurgarriak izanda ere, muxuak hartuko dituzue, ezta hala?




Urdazubiko OLAIA eta LEIANE REMENTEGI ARIZTIAK eta KAIET OTHEGY REMENTEGIK ekainaren 15, 11 eta 27an 3 urte eta urte bana bete dituzte. Zorionak Urdazubi eta Anizko familien partetik.



Elko, Nevadako MITCHELL OWSLEY Igoak uztailaren 23an 12 urte beteko ditu. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



Leitzako NAROA MARIEZKURRENA ALDUNTZINEK 3 urte bete ditu uztailaren 4an. Zorionak eta txo-komarrubizko muxu haundi bat Saioa, Iera eta Uxueren partetik.



MAITANE ERKIZIA ARBURUAK 3 urte bete ditu uztailaren 4an. Zorionak pottoka eta muxu pila familia guztia- ren partetik.



Leitzako UXUE MARIEZKURRENA ALDUNTZINEK urtea beteko du uztailaren 13an. Zorionak pottokak! Muxu bat berexiki Naroa, Saioa eta Ieraren partetik.



Goizuetako IKERREK uztailaren 10ean 10 urte beteko ditu. Zorionak Oier, atta eta amaren partetik.



Zubietako ENDIKA eta KARMELE SANTESTEBAN anaia-arrebek urteak beteko dituzte. ENDIKAK uztailaren 1ean 4 urte eta KARMELEK 13an 11 urte. Zorionak eta bina muxu poto- lo zuen familiaren partetik, berexiki Julen anaia eta Zaira, Janire eta June lehengusinen partetik.



Zorionak IORITZ MITXEO OSKOZ Doneztebeko motorzaleari! Muxu haundi bat familia guztia- ren partetik, eta berexiki Jonairen partetik. Dagoeneko badituzu hainbertze nahi zenituen 6 urteak!



Iruñeko KEMEN ETXEBERRIA GARRAUSEK uztailaren 23an 5 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat gure gizon haundiari Lesakako Arzallus eta Toñiren partetik.



Iruñeko KEMEN ETXEBERRIA GARRAUS gure pottokok uztailaren 23an 5 urte beteko ditu. Zorionak bihotza eta bat, bi, hiru, lau, bost muxu haundi haundi aitabix eta amatxiren partetik.

Behar guztietara egokitutako publizitatea

Kulturkari
diseinu grafikoa, publizitatea

Arandazeta, 12 • 31760 Etxalar • Tel. 948 635 458 • Faxa 948 635 457 • kulturkari@ttipi.net

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

ttiipi txartela

ttiipi-ttapa

Axier Ibarra Muiaberria
57913648-2
11/2010
0002988

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

ZOZKETAK

ttiipi txarteldun guztien artean
zozketatuko dira sari hauek



www.onddotapunto.com

LOTEA
KALOTXA (BERA)
OPARIAK ETA
OSAGARRIAK

ZORIONAK

* Hilabete bateko epea sariak biltzeko



IKASTOLEN
ELKARTEA
PIZTIA LIBURUA
www.ikastola.net



LOTEA
MARTIKO
www.martiko.com



2 LIBURU
IBAIZABAL
www.ibaizabal.com



BETAGARRI
MUSIKA CDa
ELKAR
www.elkar.com

DESKONTUAK

AYLA

argazkigintza fotografia
%10 karret argazkietan

DATUCELAY

%10 Batera eta amortiguadoretan

kalitza


%10 leintzerian

edurne

%5 30k eta gora, eskura eta

ETXARTE

%10eko deskontua



NAFAR MENDI
merkatalgunea
ARRAIOZ • BAZTAN

HIPERSIMPLY



ORDUTEGIAK:
Astelehenetik-Larunbatera

HIPERMERKATUA: 10:00-22:00

JATETXE-OSTATUA: 08:00-22:00

GASOLINDEGIA: 06:00-22:00

**ORAIN NAFARROAKO MENDIALDEAK
BADU BERE MERKATALGUNEA**

Hipermerkatuko eskaintza bereziak



SARDINA
ESK. ISABEL
80g. (Kiloa 9,38€)

0,75€



ATUNA OLIO BEG.
ISABEL
260g. (Kiloa 9,65€)

2,51€



0,85€

5,69€

GARAGARDOA
SAN MIGUEL
Lata 33zL. x 12 (Litroa 1,44€)



3,69€



ERRIOXA ARDOA
CR VINAGLORIA
75zL.

ESNE OSOA,
ERDIGAINGABETUA,
GAINGABETUA
KAIKU
1L.

PREZIOAK • KALITATEA • FRESKOTASUNA



*Zato Nafar Mendira, ongi etorri!
San Ferminak eta oporrak ongi pasa! Aupa Azpilkueta, Lesaka, Iruña!*